



ANITZARTEAN



## Sakana, anitzen artean

Mank-en kulturartekotasun zerbitzuak 10 urte bete ditu / 8-9

# Sakana eskualdea izanen da

Tokiko Administrazioaren Erreformatarako Legearen ondorioz Nafarroan sortuko diren 12 eskualdeetako bat da / 12

**Euskarazko irakaskuntzak bizitzako bidaia oparitzen duelako, D eredia aukeratu / 5**

**Arakilgo Udalak aurten ia milioi erdi euro gehiagoko aurrekontua izanen du, lanengatik / 7**

**Kinto ospakizunak Olatzagutian abiatu dira eta Altsasun segida izanen dute asteartean / 14**



**Igor Arrieta Danimarkan jokatu den Munduko Ziklokros Txapelketan ariko da / 15**

**Bihar, Altsasuko Zelandi kiroldegian Nafar Kirol Jolasen kimuen igeriketa jardunaldia jokatu da 17:00etan / 19**

**Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finalurreko bat Etxarri Aranatzan izanen da / 22**

*Migdalita*  **OUTLET**

**Noiz**  
Otsailak 15, 16 eta 17

**Non**  
Beasaingo Igartza Jauregian

**Ordutegia**  
10:00 - 14:00 /  
16:00 - 20:30

**Doako sarrera**

Bizi - Jantzi

Emakume, gizonezko, haur eta gazteentzako arropa eta osagarriak  
Taberna - Kutixiak - Umeentzako tailerra - Opariak - Erakusketa - Eta abar



Luis Mari Lopez de Goikoetxea Sueskun Foru plazako eskulturaren ondoan.

# Kulturatik Altsasu eraikitzen aritutako bat

**LUIS MARI LOPEZ DE GOIKOETXEA SUESKUN DANTZARI ETA DANTZA IRAKASLE OHIA**  
Errege Eguneko fara jotzea, zezensuzkoaren ardura, inauteriak, mendizaletasuna...  
Eta kintoen zortziko dantzaren irakaslea. Askok egindakoarekin dantzaz aritu gara

ALTSASU

**Kintoen entsegutara joaten zara?**

Aurreneko astetan joan naiz. Eguraldi txarrarekin ez noa, etxean gusturago egoten da. Urtero moduan, batzuek ederki

dantzatzen dute. Dantzarako grina dute. Eta beti daude makurrak direnak. Dagoeneko hartzen ari dira. Nik ez diet ezer esaten. Urtetan egon naiz. Baina beti dago zuzendu beharreko

zerbait eta irakasle berriei esan diet (Aitziber Etxaiz eta Maixa Lopez de Uralde, ikus azken orria). Zenbait gauza zuzendu ditugu. Ari dira. Ongi.

**Estreinakoz emakumeak irakasle.**

Joan den urtean aipatu zidaten Beramendik eta Claverrek. Oso ongi iruditzen zait. Aintzindari dantzari taldean aritutakoak dira. Poztu nintzen. Zuzen eramanen dituzte. Dagoeneko ikusten da. Zortziko ahalik eta hobekien dantzat dadin ekarpen handia egingen dute. Baita neska-mutilek interesez aritzeko ere.

**Jende asko joaten da kintoen entsegutara. Garai batean ere?**

Bai. Eguraldi txarrarekin, gainera, jendea biltzen da. Aurten gauza on bat dute, berogailua. Aurreko urteetan berotzeko dantzat beharra zegoen.

**Non entseetzen zen?**

Frontoia dagoenetik han entseetzen da. Txikia nintzela handiagoak ziren eta Santa Ageda egiten zuten aldamenek Domingo Lumbier eskolara eramaten ninduten. Eskola pasabideetan entseetzen zen, alde batetik bestera. Nik han ikasi nuen zortziko. Santa Ageda egin genuenean Demetrio Urizarrek dantza erakutsi zuen azken urtea izan zen, 1968an. Nik dantza nekien, baina ordenarik gabe. Santa Agedetarako guztia nekien. Demetriok makila, opilak, nola eskatu, nora joan... Dena zekien eta xehetasunak hartzen zenituen.

**Hori guztia mantentzen da?**

Ez da ezer aldatu. Gauza bakarra, gaur egun kaikuak daude. Oso ongi dago. Baina lehen inork ez zuen kaikurik eta otsaileko hotzetik babesteko domeketako txaketa janzen zen, kinto-eskean ibiltzeko. Eguraldi ona bazegoen zapiak agerian eta kitto.

**Zenbat urterekin izan zinen kinto?**

20 urterekin, hurrengo urtean soldadutzara joateko.

**Noiz hasi zinen zortziko erakusten?**

Soldadutzatik bueltan. 31 eguneko baimen ofiziala eman eta etxera bidali gintuzten, lehena goz lizentziatuta. 1969ko Santa Agedako zozketarako etorri nintzen. Javier Martinez eta Pedro Espinosa, erregea eta erregeordea, etxera etorri ziren zortziko erakusteko eskatuz (aurten 50. urteurrena ospatuko dute). Ordurako dantzariekin eta Enrike Zelaiarekin dantzan

nenbilen. Nik helduagoengana jotzeko esan nien: Jose Elizondo, Demetrio Urizar... Azken horrek ez zuela egingen banekien. Gurekin utzi zuen. Aurreneko egunean frontoira joan nintzen eta Jose Elizondo agertu zen. Eta esan nion: Jose, edo zu edo ni. Ni gelditzeko esan zidan. Aste bat niri hitz egin gabe egon zen. Behin esan nion ea Santa Agedakoagatik izan zen. Gero hitz egiten hasi eta entsegutara joaten hasi zen, begiratzen.

**Kintoei plazatik elurra kentzea askotan tokatu zaie?**

Askotan. Ez zuten frontoira joan nahi. Guk egin genuenean, 1968an, frontoira joan ginen euri erauntsia zegoelako. Ez zegoen jenderik. Bestela, Martin Uhalde zenak udalaren behorrendako eskubara zuen eta harekin kendu eta plazan dantzatzen.

**Zenbat urtez egon zinen irakasle?**  
1969tik 2008ra. Azken urte hori barne. 40 urte.

**Dantza irakasle erretiroa hartzean zer sentitu zenuen?**

Hori guztia barruan daramazu. Bizi guztia dantzan eman dut: dantza taldeekin, dantzari txikiekin eta handiekin, Enrike Zelaiarekin 10 urtez. Horrek mantentzen zaitu.

**Estimulua kendu edo erreleboa emateko garaia zen?**

Lekukoa pasatzea. Iruñean gaxo nongoen. Juan Cruz Bengoetxea, Piloto, eta Andoni Beramendi izanen zirela esan zidaten. Aukera ona zela iruditu zitzaidan, dantza taldean aritutakoak baitziren. Bengoetxea biok Zelaiarekin 3 edo 5 urte dantzan aritu ginen. Galderak egiten zizkidaten eta erantzuten nien.

**Dantza irakaslea zinela plazan dantzatzetik ez dantzatzera pasa ginen.**

Elkarrizketatu nauten bakoitzean esan dut dantzarako, jotarako, porrusaldarako eta denetarako eskolarik onena plaza izan dela. Plazan denok ikasi dugu, akademiarik onena da. Dantza taldean sartzen bazara, taldera batu eta dantza egin behar da.

**Garai batean kintoen artean zortziko ongien dantzatzen zuenari saria ematen zitzaion, ezta?**



**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
[www.ventanasegoki.com](http://www.ventanasegoki.com)

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

[egoki@ventanasegoki.com](mailto:egoki@ventanasegoki.com)



Acrylcolor  
SISTEMA BERRIA  
KOLEOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Enrike Zelaiaren burutazioa izan zen zortzikoa hobekien dantzatzaren zuenari trofeoa ematea. Ez dakit zein urtetan izan zen. Nire nahia zen benetako dantza izatea, baina ez sariagatik ez ezeragatik, soilik Santa Ageda zelako. Argi esan nuen ez nuela ideia gustuko. Hizketaldiak izan ziren eta urte hartan egin zen. Ez zen errepikatu. Kintoekin hitz egin genuen eta denak ados zeuden ez zela sariarik egon behar. Horretarako zeuden entseguak. Gero plazan norberak onena eman zezala.

#### **Zu irakasle hasi zinenerako dantzarako giroa bazegoen herrian?**

Bai. Gu mendizale handiak ginen. Gure Etxea elkarteko mendi atala. Behin Alegiara joan ginen, txistulariekin, Juan Pablo Urizar tartean. Han Tomas Iraolarekin hizketatu ginen. Alegian dantza taldea utzia zuten eta Altsasura etorri zen larunbatean. Dantza talde majo bat sortu genuen. Entseguak Gure Etxea eraikinean ziren. Hil arte gurekin urte pila izan zen.

#### **Harekin zer ikasi zenuten?**

Gipuzkoako dantzak batez ere. Ondoren inguruko dantzak, zortzikoa, inauteriko dantza, Bizkaiko dantzaren bat. Iraolaren ondoren haren eskolako Jesus Mari Garate etorri zen. Altsasuko baten iloba zen, hona etorri eta Aintzindari dantza taldera arte egon zen dantzan eta irakasten. Irakasle ona zen hura ere. Dantza asko zekizkien.

#### **Gure Etxeako dantza taldearen aurretik talderik izan zen?**

Dantzari txikiak, Gure Etxeko dantzari taldea. Aitziber eta Maixa 8 urtetxorekin dantzatzaren zeuden. Eskoletan eta mojen ikastetxean, arratsaldeko klaseak bukatu ondoren, dantza ordu bat ematen nuen. Eta taldea sortu zen, 200 bat neskato eta mutiko. Urte batez, festetan, guztiak dantza erakustaldi batera atera nituen. Ilara ikusgarria. Guztiak baserritarrez jantzita. Hala taldea sortzen joan zen. Altsasuko dantzari taldea sortu zen Villareal eta hauekin guztiekin. Aintzindari dantza taldea etorriko zen ondoren.

#### **Gure Etxea, Altsasuko eta Aintzindari dantza taldeetan izan zara?**

Bai.

#### **Gaur egungo Etorrizuna dantza taldea.**

Iñaki Agirre ongi ari da.

#### **Saioak ikustera joaten zara? Zer iruditzen zaizkizu?**

Ez dut bat galtzen. Koreografia desberdinak dira, baina onak. Askok poztu ninduen azken emaldia Garateren omenez izatea. Garatek Enrike Zelaiaren *Hator, hator* piezarekin dantza sortu eta erakutsi zigun. Hura dantzatu zuten. ETBn ere ikusi dut, duela gutxi omendu dutelako.

#### **Enrike Zelaiarekin han eta hemen aritu zinen dantzan, berak zioen moduan: euskal showa.**

10 urtez aritu nintzen (70eko hamarkada). Bi dantzari bikote joaten ginen berarekin. Patxi Goikoetxea eta biok hasi ginen. Bera dantza taldeko kide eta dantzari txiki taldearekin izana, ni baino askoz ere lehenago egon zen. Enrikerekin batera dantzan egon ziren Maribel Zornoza, Gurutze Arregi, Maria Jesus Bengoetxea eta Margari Iglesias. Zelaiarekin Euskal Herri guztian barna ibili ginen, asko. Dena betetzen genuen. Bilboko Albia

koliseoan ere aritu ginen. Ez da gauza bera kalean edo halakoetan, itxian, dantzatzea.

#### **Joan-etorrietan zuk eta Zelaiak hainbat bat gauza makinatuko zenituzten...**

Beno... Inauteria bion artean biziberritu genuen. Jakina, askoz ere jende gehiagoren laguntzarekin. Dantza taldea eta horiek guztiak. Momotxorroen dantzari Zelaiak jarri zion musika. Gasteizen dantza egiteaz Zelaiaren autoan bueltatzen ginela esan zidan: hau da kanta. Eta kantatzearekin batera autoaren bolantea batera eta bestera mugitzen hasi zen. Eta esan nion: Enrike, hilko gaituk! Frontoian entseatzeko hasi ginen inauteri dantza. Zortzikoaren antza du. Dantza taldekoek entseatu genuen. Irakasle aritu nintzen ere. Hor segitzen du dantzak.

#### **Urte berean sortu zen Momotxorroen dantza?**

Zerbait falta zela iruditzen zitzaigun eta osatu beharra zegoen. Bigarren urtean izan zen. Zelaiaren burutazioa.

**Inauteriak biziberritzearena, nolaz?** Zelaiak inauteriak egin behar zirela esan zuen. Hizketan hasi eta... Adarrak, odola... Nondik sortuko ditugu? Adinduei galdetzen hasi ginen: astakeria hura berriro? Egiteko gogo zuten, baina aldi berean: berriro hura? Hala hasi ginen. Egin behar zela erabaki eta gaiarekin genbiltzan batzuekin koadrila bat bildu eta atera zen.

#### **Eta fara-joleena antolatzea?**

Lehen bakoitza ahal zuen moduan ateratzen zen. Farak ez zituenak pote batean harriak sartu eta aurrera. Zelaiak esan zidan hura egiten hasi beharko genukeela. Liatu ninduen eta ekin genion. Anjel Otxoa Mateo ere. Ni baino helduagoa zen, mendizalea ere. Haurrekin korrika egin behar genuen. Pasada ederrak izan dira! Norte erlojudendakoari opilean sartzeko zilarrezko fara egiteko eskatu genion. Aurreneko urtean okertu eta txilina egin zuen. Baina geroztik fara egiten du.

#### **Ideia bat gauzatzeko gelditu zaizue?**

Ez dakit. Berriren bat ateratzen bada, ikusiko dugu. Akaso ferietarako utziko dugu (barrez).

#### **Altsasutik kanpo dantza irakasle aritu zara ere.**

Etxarri Aranatzan, Andra Mari ikastolan, hiruzpalau urtez aritu nintzen. Itziar, Feli eta Txelo urdindarrekin. Baldintza bakarrarekin. Etxarriko mendizaleak lagunak nituen eta haietako bati dantzakia erakusteko eskatu nion. Ezetz, hura Etxarrikoa zela eta ez zidaten erakutsi. Benetan. Dantza ikusiz ikasi nuen, baina, jakina, ezta bururatu Etxarri dantzatzea. Urdiainen ere nahikotxo ibili ginen. Bakaikuko jubilatuen bazkarian dantzatzera joan nintzen Jose Andres Sanchez txistulari etxarriarrekin. Ondarra konposatzailearen iloba bat etorri eta Bakaikuko zortzikoa ikas nezala nahi zutela esan zidan. Inork ez omen zekien. Bere etxeko

## **"ELKARRIZKETA GUZTIETAN ESAN DUT: DANTZARAKO ESKOLARIK ONENA PLAZA IZAN DA"**



Luis Mari Lopez de Goikoetxea Sueskun 1978ko ezkontza batean dantzan. UTZITAKOIA

estarbian sartu ninduen, gutxi gorabehera doinua kantatu. Ondoren, Zelaiarekin hizketatu eta Bakaikuko zortzikoa lortu zuen. Sanchezekin batera Bakaikun entseatzeko hasi ginen. Talde ederra sortu zen. Gaur egun dantza dantzatzeko da, mantentzen da. Altsasuko Sociedad Deportivako Etxeberria atezaina guztien arduradun gelditu zen. Omenaldia egin zidaten.

#### **Ezkontza askotan dantzatutakoa zara?**

Pila bat. Batak eta besteak euren ezkontzan dantzatu nezakeen galdetzen zidaten. Lehenik, mezan dantzatzeko nuen, ondoren elizaren kanpoko aldean eta, azkenik, bazkaldu ondoren. Nere anaia koinatuaren ezkontzan dantzatu nuen estreinako. Antonio Espinal apaizak mezan ezin zela dantzatu esan zidan. Txistulariarekin batera korura igo nintzen. Bergerarenean arropaz aldatu nintzen (txuriz jantzi) eta elizatik sakristiara sartu nintzen. Eta koruan zegoen txistulariari keinu egiterakoan jotzen hasi, ni sakristiatik atera eta dantza egin nuen. Apaizak eliz barruan dantza egiten ikusten zuen aurreneko aldia zen. Ondoren azaldu nion zer zen aurrekoa, erreberentzia. Gustatu zitzaion eta ez zuen trabarik jarri.

#### **Eta kalean eta bazkaldu ondoren zer dantzatzeko zenuen?**

Kalean Pello Joxepe edo dantza arruntetako bat. Bazkalostean, jota pare bat. Jakina, nire albiziara. Bakarrak, nire kasa. Bueltekin eta halakoekin gauza harriarriak egin eta jendea pozik. Hori niri berez ateratzen zitzaidan: bazkaldu ondoren, behintzat, detalleren bat izan beharko dut.

#### **Dantzaren bidez herritar asko altsasuar sentiarazi duzue.**

Bai. Jende asko. Extremadura-koak eta bazter guztietakoak. Jendea sartzen zen eta kitto. Ez da inolako eragozpenik izan. **Ohituren eta kulturaren arloan zuk eta beste hainbatek egindako lanagatik Altsasu gaur egun den modukoa da.**

Kaletik zoazela jendeak esaten dizu: zuei esker... Eskerrak ibili zaretela... Zeren gaur egun Altsasu hilik dago. Etorrizuna aparte, ez dago. Etorrizuna dantza taldean mutirik ez egoteak, horrek pena eman zidan. Eta nahiko lan egiten du dantza taldeak.

Osorik: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

## Zientziaren esana, amen!

Aurreko egunean El Pais egunkarian irakurtzen nuen Ilargian baratza egiteko proiektua aurrera daramala Txinak eta lehenengo landareak sorrarazi dituztela, negutegi ontzi batean kotoi haziak baliatuta. Baina, ikusten denez, hango baldintzak ez dira egokienak eta egun gutxitan hondatu dira. izan ere, beste baldintza eskasen artean, gure zazpi egun irauten duen gau ilargitarrean -122° C-ra jaisten omen da temperatura. Proiektu horren atzean Ilargia jendez kolonizatzea dago. Aurretik ere, leku berriak esploratzeko grina hor egon da. Halaxe eginen zuten euskal balea-arrantzaleek eta Elcano getariarra bezalako makina bat jende eremu arrotzak arakatzera joan zenean. Ezberdintasun batekin, haiek ez bezala, gaurko teknologiaren bidez, informazio nahikoa dugu eremu arrotz horien gainean.

Zientzia eta Teknologia bikotea Jainko berri liluragarriak bihurtu zaizkigu. Horren izenean datorren guztia jendeak edo gizarteak "ontzat" ematen du kritika txikienik gabe, asmakizun horiek ongizatea bilatzen dutelakoan (gehienetan, kontsumismo gaixobera). Baina, inolaz ere, ez da baloratzen proiektu horien garapenak lurrarekiko eta ekologiarekiko duen inpaktua eta kostua, alegia, teknologia toxiko horrek dakarren kalte larria (lurra pestizidez zikintzea, aire kutsadura, itsasoak plastikoz betetzea, klima aldaketa, espazioko zaborra...). Halako moduz buru-garbiketa egin digute, non Ama Lurra hondatzea eta txikitzea naturalizat ematen dugun; aberats handien eta estatu boteretsuen inteligentzia militarra ahalbidetzen duten politikariaren aberastasun pilaketa eta botere gosearen ondorioa dela ohartu gabe. Izan ere, gaur egun aski ezagutza zientifikoa dago garapena lurraren eta pertsona guztien ongizatea zainduz gauzatzeko.

Egun hauetan, Sakanako herrietan inauteri giroan murgildurik, paleolitikotik datorkigun erritoei jarraikiz, lurra astinduko dugu makilez eta kriskitinen eta joaren hotsez bizitzaren aro berri baten hasierari deia egiteko, lurra baita bizitzaren sortzaile. Hala ere, baita Sakanan ere, mahai gainean dugu Zientzia eta Teknologiaren izenean datorkigun proiektu suntsitzaile bat, Estatuaren ezarpenez eta elite ekonomikoaren eta politikoen gezur borobilez apainduta, Abiadura Handiko Trena, hain zuzen ere. Noiz plantoa?

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEek eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoko: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## HARA ZER DIEN

### Urte bat

#### SASOIA JUBILATUEN ELKARTEA

Bai, urte bat egin du Jubilatutako Pentsioen astelehenetako borrokak. 2018ko urtarrilaren 15ean egin zen lehendabiziko manifestazioa eta, bata bestearen atzetik, hortxe joan dira 53 astelehen. Inor gutxi sinistuko zuen borroka honek urte bat iraun zezakeenik, baina gaur, hori baiezta dezakegu. Batez ere Bilboko manifestazioak deigarriak izan dira, baina beste hiri eta eskualdetakoak gutxietsi gabe. Milaka eta milaka jubilatutako parte hartu du urte osoan eta eredu garria jo dezakegu gure borroka.

Merezi izan du? Zer lortu duzue? Egia da, aldarrikatu ditugun helburuak ez ditugu lortu. Ezin dugu esan Pentsioen Sistema Publikoaren legearen bidez bermatuta dagoenik, ezin dugu esan 1.080 euroko gutxieneko pentsioa onartu digutenik, emakumeen pentsioen aldea desagertu denik, iraunkortasun faktorea behin betirako indargabetu dutenik.....

Pertsona ezkorrek, sinesgaitzek, ez dugula ezer lortu esango dute, baina jakin dezatela beraien pentsioa 1,7 igo dela 2018an eta 1,6 igoko dela 2019an, ez 0,25 euro. Pentsio baxuenak %3 igoko dituzte. Alargunen pentsioa kalkulatzeko oinarria %56koa izan da 2018an eta %60koa

izango da 2019an. Hau jubilatutako urte bat kalean daramagulako izan da, ez digute gure pobreziaz errukitu direlako eman.

Bagenekien ez zigutela eskatzen genuena emango, baina bagenekien zerbait ematekotan eta lortzekotan hau dela bidea. Beraz, lorpen nagusia politikoen eta gobernuen agendan sartzea izan da. Garrantzitsua da dirua, baina kolektibo gisa eraginik ez badugu lortzen, nahi dutena egingo dute diru publikoarekin; eraginkorrak izatea lortzen badugu, baldintzatuko ditugu Madrilgo, Gasteizko, eta Nafarroako gobernuak, jubilatuekiko dituzten asmoak. Bide bakarra borroka da.

## OBJEKTIBOTIK



### Erreka bazterretako izaki gardenak

Irakurle batek gure erreka bazterren argazkiak bidali dizkigu eta guztietan izaki garden hauek agertzen dira. Sakanako erreketan geroz eta animalia gutxiago ikus dezakegu, aldiz, norma-lagoa da plastikozko poltsak edo

piezak ikustea. Plastikoz beteriko paisaiak arazo handiak dira ekosistemarentzat, animaliak eta landareak gutxitzen dituelako eta gainera, uretan geroz eta plastiko partikula gehiago aurkitzen dugulako.

## ZUZENKETA

Pasa den astean jakinarazi genuen Sakanako bost musika eskolek Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza jaso zutela. Guztien artean 121.653,78 euro jaso zirela jakinarazi genuen. Baina kopuru hori ez da zuzena, 81.102,66 euro izan baitziren bost musika eskolek jaso zutena, honela banatuta: Irurtzun 18.888,63, Lakuntza 14.743,10, Etxarri Aranatz 24.654,96, Altsasu 19.309,42 eta Olatzagutia 3.506,55.

Gurekin harremanetan jartzeko

**618 882 675**

**GUAIXE**

**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

**Koordinatzailea:**  
Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

**Diseinu zerbitzua:**  
GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua  
gk@gkomunikazioa.eus

**Administratzailea:**  
Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

**Zuzentzailea:**  
Felix Alzelai Iriarte

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.200

**Erredakzio burua:**  
Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

**Erredakzioa:**  
Maider Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

**Maketatzailea:**  
lune Trecet Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

**Publizitatea:**  
Maria Saez de Albeniz Bregaña  
publizitatea@guaixe.eus  
eta Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

**ARGITARATZAILEA:**  
Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



**Nafarroako Gobernua**  
**Gobierno de Navarra**



D ereduaren matrikulatzeko kanpainak haurrak bidaiatzera animatzen ditu. @ERANAFARROA

## Euskarazko irakaskuntza, bizitzako bidaia oparitu

D ereduarekin seme-alabek euren desirak bete ditzaketelako, hartan matrikulatzera deitu du Mank-ek

### SAKANA

Heldu den ikasturtean eskolatu-ko diren ikasleak matrikulatzeko epea heldu den astean izanen da, astelehenetik ostiralera. 3 urteko haur horiendako hainbat irakaskuntza aukera daude. Baina Nafarroako tokiko hainbat erakundek, Sakanako Mankomunitatea barne, Euskarabidearen laguntzarekin, *Aspalditik gatoz eta #Urrutira goaz* kanpaina martxan jarri dute, gurasoak euskarazko irakaskuntzaren aldeko apustua egitera gonbidatu dituzte, "seme-alabei bizitzako bidaia oparitzeko".

Kanpainaren sustatzaile diren toki erakundeek adierazi dutenez, "D ereduaren da, hizkuntzen murgiltze goiztiarraren bidez, Nafarroako bi hizkuntzak, gaztelaniaren eta euskararen eta atzerriko hizkuntza baten oinarri sendo bat bermatzen duen bakarra. Ziurtatu dutenez, "euskaraz-

ko ereduak haurrei bertako kulturarekin harremana eskaintzen dio eta gure gizartean haiek sartzea indartzen du.

Euskarazko irakaskuntzak ibilbide luzea egina duela nabarmendu dute: "hainbat guraso belaunaldik arrakasta handiz haien seme-alabak kalitatezko eredu horretan matrikulatu dituzte, eta erakutsi digute, horietako askok hizkuntza jakin gabe ere, ikastetxearen laguntzarekin haien seme-alabak kultura, lan eta gizarte aukera handiak dituzten euskaldun bihurtu direla". Haurrak euren inguru hurbilaz gozatzen haziko direla gaztigatu dute

Hizkuntza batek beti gehitzen duela, D ereduaren matrikulatzearen aldeko aldarria egin dute toki erakundeek. Horregatik, gaineratu dute: "ez du inporta nondik zatozen, nora goazen baizik".

# 90 km orduko, abiadura muga berria indarrean

Autobiak eta autopista ez diren errepideetan gehienezko abiadura muga 90 km orduko izanen da gaurtik. Bigarren mailako errepideetan joan den urtean 24 pertsona hil ziren Nafarroan, haietako bi sakandarrak ziren

### SAKANA

Bi norabideak fisikoki bereizi gabe dituzten ohiko errepideetan abiaduraren muga orduko 100 kilometroetatik 90era jaitsi da. Hori ibilgailu arinendako, autobusendako eta furgoneta txikiendako da. Furgoneta handien, kamioien eta gurdia duten ibilgailuen abiadura muga 80 km orduko izanen da, Europan ohikoena dena. Azkenik, bizikletek eta ziklomotoreek gehienez 45 km orduko abiadura hartzeko aukera izanen dute.

Bigarren mailako errepideetan abiadura jaisteko erabakia Espainiako Gobernuak hartu du. Neurri horrekin trafiko istripuak murriztu nahi dira, izan ere, errepide mota horretan izaten dira trafiko istripuetako 10etik 7. Gehiegizko abiadurak, gainera, auto istripuen % 20 eragiten ditu. Gobernuak neurri horrekin beste helburu bat lortu nahi du: bigarren mailako errepideak erabiltzen dituzten bidaiari eta merkantzia ibilgailuen arteko abiadura alde murriztea. Izan ere, ikerketek erakutsi dute errepidearen batz besteko abiaduran ez doazen ibilgailuek istripua sortzeko aukera gehiago dute. Esaterako, kamioiak (90 km/o lehen) eta motor eta autoen artean (120 km/o lehen). Azkenik, gehie-



Autoak Lakuntzako errepidean.

gizko abiaduraren murrizteak gertatu daitezkeen istripuen ondorio ezkorrak gutxitu nahi ditu.

### Istripuak gora

Trafiko ezbeharrek 28 hildako utzi zituen joan den urtean Nafarroan, aurreko urtean baino 13 gehiago. Bigarren mailako errepide sarean 24 pertsona hil ziren joan den urtean. Erabakia duela hilabete hartu zen, eta bitarte horretan Nafarroako Gobernuak Nafarroako errepide sareko 3.860 kilometroetatik

3.454ean 107 seinale ordezkatu ditu.

Sakanako errepide sareko 90 kilometro baino gehiagori eragiten die neurriak: Aizkorbe-Irurtzun (1,1 km), Irurtzun-Ziordia (37 km), Irurtzun-Oskia (4 km), Etxeberri-Zuarrarrate (6 km), Ergoiena (6 km), Lizarraga-Lizarrusti portuak (21 km), N-1 zaharra (6 km), Urbasako portua (7 km). Aipatutako errepide horietatik herrietara sartzen diren gainerako bideberri txikiagoei ere eragiten die asteartean indarrean jarritako erabakia.

GOIZERO 10:00-12:00  
EGUN ON SAKANA

10:00 Prentsa eta eguraldia  
10:15 Bateti bestia  
10:20 Eguneko albisteak  
10:45 Hizketan  
11:20 Sarea  
11:55 Bukaera

107.3 FM  
**beleixe**

DENBORALDI BERRIAI

ZUZENEAN

ONLINE  
ENTZUTEKO  
GUAIXE.EUS



Oiarbide harategiko Beñat Goikoetxea Oiarbide saria jasotzen. UTZITAKOA

# Gipuzkoako kroketarik onenen atzean dagoena

Gipuzkoako kroketarik onena bi altsasuarrek egin dute, Beñat Goikoetxea Oiarbide eta Patxi Arangiz Oiarbide lehengusuek. Hala erabaki zuen III. Gipuzkoako kroketa txapelketako epaimahaiak ilbeltzaren 18an. Lehiaketa hori bitan segidan irabazi dute

## ALTSASU

Bi lehengusuek Idiazabalen eta Zegaman dituzte Oiarbide harategiak eta Goikoetxearekin hizketatu gara bitan irabazi duten sariaz eta bestelakoaz.

### Ez da lehen saria.

Joan den urtean Ordizian txistorrarekin bosgarren, Azpeitiko txorizo egosien lehiaketa irabazi genuen baita kroketen ere. Ikaragarri ona. Aurten horrela hasi gara eta oso gustura gaude. **Nolakoa da kroketa txapelketa bat?** 25 edo 30 geunden, etxeoandreak, sukaldariak... Nahi duena joaten da. Zure kroketa eginak hara eramane behar dituzu eta epailen aurrean frijitu eta aurkeztu behar duzu.

### Zerekoa da saritutako kroketa?

Oso klasikoak izan gara. Eta, aldi berean, atrebituak. Guk pentsatzen dugun gure kroketekin joan behar dugula, harategietan saltzen ditugunekin. Urdaiazpiko, ontto eta gazta kroketa egiten ditugu. Kasu honetan urdaiazpiko kroketaekin joan

ginen. Kroketa hori bera eraman genuen. Baina lehiaketan aurkezpena eta berrikuntza kontuan hartzen dutenez, kroketa forma borobila eman genion, zulo txo bat egin genion eta frijitu ondoren kroketa gainean sagardo kabierra jarri genion. Bukatzeko, urdaiazpiko tosta bat jarri genion. Gehien baloratzen dutena masa da. Berrikuntza, apaindura, aurkezpen... Egia esan behar badut hori Patxiren amaren, Txaro Oiarbideren gauza izan zen. Horretan asko laguntzen digu.

**Harategiak saritutako produktuak saldu, bezeroak kontentatu, ezta?** Bai. Batek esaten zidan: ze suer-te daukagun! Hemen Gipuzkoako kroketa onena dugu!

### Halako sariak badute eraginik?

Batzuk etorri dira, irratian entzun zutela esanez. Ez da boom bat. Zuk ez duzu kroketa egiten txapelketa irabazteko, gu saiatzen gara beti gauzak ahalik eta hobekien egiten. Gero sariak ateratzen badira, oso ondo.

### Oiarbide harategiak Zegaman eta Idiazabalen dituzue. Nolaz?

Duela hiru bat urte Patxi eta biok beste batzuek harakin lanean ari ginen. Zegaman harategi bat hartzeko aukera izan zen. Zergatik ez? Besteendako lanean aritu ginen eta bizitza ateratzeko kapaz ikusten ginen. Azkenean, hori da, ezta, bizia atera. Han edo hemen. Zegamara joan ginen biok. Han geundela konturatu ginen gaur egun jendeak aurretik prestatutako jaki asko eskatzen dituela. Zegaman hori egiteko leku fisikorik ez zegoen. Idiazabalen beste harategi bat hartzea erabaki genuen. Hala, batek sukalde kontuak egiten ditu (kroketa, lasagnak, haragi bolak, tripakiak,

**"BESTEENDAKO LANEAN ARITU GINEN ETA BIZITZA ATERATZEKO KAPAZ IKUSTEN GINEN"**

egositako txerri hankak, izter beteak, mihi egosia edo arrautzaztatua...) eta besteak beste. Jendeak ez du denborarik sukaldean aritzeko, edo ez du hartu nahi. Agian iruditzen zaio sukaldean egotea denbora galtzea dela. Askok maratoia egiteko beta dauka, baina sukaldean egoteko ez. Jendearen lehentasunak aldatu dira. Ez da hainbeste kuzinatzen. Emakumezkoak ere etxetik kanpo egiten du lan; lehen etxean lan asko egiten zuten. Horrek eramaten gaitu guk prestatutako janari gero eta gehiago saltzera. Nik bakarrik, Patxi gabe, ezinen nuke ezer egin.

### Osagarriak.

Gaur egun harategiak asko aldatu dira. Aurretik prestatutako asko eskatzen da; gorantza doa. Ni sukaldean zentratzen naiz eta bera hestekietan. Eta oso gustura.

### Apustu horrek ematen dizue?

Bai. Gustura gaude. Hasieran Altsasura etortzea pentsatzen genuen. Baina legeengatik ezin genuen. Gure tontakeria da, baina ez da: Gipuzkoa eta Nafarroa probintzia desberdinak direnez, zuk batean egiten duzuna ezin duzu bestean saldu. Bi harategi Nafarroan, edo Gipuzkoan izanik, bai. Baina bat Altsasun eta bestea Zegaman ez dizute produktua batetik bestera eramaten uzten.

### Haragia, nondik?

Guk Etxarri Aranazko hiltegiari hiltzen dugu, Sakanako hiltegiari. Zortzi harategi txiki gara. Guk Sakanaren alde apustu egin dugu. Sakanako hiltegiarekin konpromisoa dugu. Apustu egin dugu Sakanako hiltegiarekin. Hori ere interesgarria dela iruditzen zait. Guk gertutasuna nahi dugu. Bertako produktua erabili. Behintzat Sakanak jakin dezan nongo haragia den, nongo hiltegiari hila dagoen eta non erositako dagoen. Hor lan egiten dugun zortzi-bederatzi harakin gara. Sakanak bultzatu nahi badugu, hor lau lanpostu daude. Horri eustea oso garrantzitsua iruditzen zait. **Bertako lehen sektorea bizirik mantentzeko...**

Bai. Eta harategiak ere. Guk ez badugu txahalik erosten, besteak erosiko du. Azkenean, zirkuluekonomia, ezta? Denok elkarrekin zer edo zer egingen dugu, ezta? Hori da gure pentsatzeko modua eta hor ari gara, bizia ateratzen saiatzen.

## Gazte-txokoko plangintza parte hartzean oinarritu da

12 eta 23 urte arteko ehun bat gazte parte hartu dute. Programa udalaren oniritziaren zain

## ALTSASU

Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak parte-hartze prozesu bat egin du aurtengo plangintza gauzatzeko. Zerbitzuko teknikari Blanki Torres, gazte-txokoko begiraleak eta ikastetxeetako berri-emaleak izan dira prozesua aurrera eramanez arduratu direnak. Torresek esan digunez, "ezinbestekoa da gazteek parte-hartze aktiboa izatea prozesuan, haien ikuspuntu, ardurara, behar, kezka, interes, eta abarrak gertutik ezagutzeko". Eta berriemateak prozesuan izan duten "funtsezko eginkizuna" nabarmendu du. Ikastetxe guztietan postontziak jarri dituzte eta mailaka azalpenak eman dituzte. Sare sozialak erabili eta gazte-txokokoan bilerak ere egin dituzte.

Hona neskek zer programatzea proposatu duten: dantza, shuffle, sexualitatea, generoa, bullyinga, lehen sorospenak eta abar lantzeko proposatu dute. Baita, Euskararen Egunerako olerkiak eta bertsoak egitea, La Morea merkataritza-zentrorra eta azokara joatea ere. Mutilek, berriz, zerrendatu dituzten proposamenak dira: telebista bat jartzeko, boxeo-tailerra, paintball, herri kirolak, survival (zoniak), irtenaldiak, rokodromora, pin-pon txapelketa, futbolina, karsak, billarra, kartak, eta abar.

Guztiekin egindako proposamenak dira: Playrako joko gehiago, scape rooma, irteerak, rokopolisera, izotz-pistara, saltinera, Portaventurara, hondartzara irteera... Era berean, gaueko joko eta gynkana gehiago egiteko proposatu dute, "gaupasa" egitea Gazte-txokokoan, sukaldaritza-tailerrak, karta-txapelketa eta mahaiko jokoak, bingoa, herri kirolak, zoniak, graffitiak, karaokea eta kontzertuak. Iradokizunak ongi etorriak dira.

# Lanek aurrekontua milioi erdi igotzea ekarri dute

Arakilgo Udalak 1.250.819,13 euro kudeatuko ditu aurten, joan den urtean baino 484.450,98 euro gehiago (%63,21eko hazkundera). Toki Inbertsio Planean onartutako bost lanek eta Izurdiaga eta Irurtzun arteko espaloiak handitu dute aurrekontua

## ARAKIL

Aizkorbeke sareak, zorua eta argiteria berritzea, Hiriberri-Arakilgo ur-hornidura sarea berritzea, Egiarretako San Anton kaleko sareak eta zoladura berritzea, Izurdiagako saneamendu sarea eta zorua berritzea. Tokiko Azpiegitura Planean jasotako lan horiek guztiak egiteko 491.632,46 euroko inbertsioa egingen du Arakilgo Udalak. Gainera, Izurdiagako autopistako zubitik Irurtzango mugara arte joanen den espaloia egiteko 105.836 euro bideratu ditu Arakilgo Udalak. Horregatik guztiagatik, igo da hainbeste aurten udal aurrekontua.



Ekai eta Etxarren artean egingen dute industrialde berria. ARTXIBOA

Patxi Uharte Garro alkateak jakinarazi digunez, joan den urtean egindako kontratazio berak egiteko asmoa du udalak aurten: gizarte eta kultur dinamizatzailearen kontratua berri da, lan anitzak egingen dituen langilea 8 hilabetez ariko da, udaleko lantaldean aritzeko 3 hilabeteko 3 kontratu egingen dira, Iturraskarrirako 2 eta basogintza ikasten ari den bat praktikak egiteko hartuko da.

Kontzeju guztien artean 35.000 euro banatuko ditu aurten ere Arakilgo Udalak. Guztiek kopuru finko bat jasoko dute eta populazioaren arabera beste bat. Kultur eta kirol jarduerak sustatzeko diru-saila 109.650 eurokoa da. Udalak administrazio elektronikoa ezartzeko bidea hasi zuen joan den urtean eta aurten bukatu nahi du, horretarako 11.700 euro bideratu baititu. Zorra pagatzeko eta finantza gastuetarako 40.400 euro izanen dira.

## Industrialdeak

Uharte ilbeltzaren 23an Nasuvinza enpresa publikoko buruekin elkartu zen. Inasa industrial-

dean Arakilek dituen 45.000 m<sup>2</sup>-ak eta haien garapena izan ziren hizpide. Lurrak kutsatuta zeuden eta haiek dagoeneko kontrolatuta daudela esan digu Garrok: "Arbizuko hondakindegira eramanen dituzte". Akuiferoak ez daude garbi: "Ebroko Ur Konfederazioak kutsadura kentzeko bi urteko epea jarri zuen. Gaur egun toki batzuk garbi daude, besteak ez. 8-10 hilabeteko epea itxaron beharko dugu ikusteko zer gertatzen den. Hala, aipatutako bi urteak beteko dira". Guztiz garbitu ondoren etorriko litzateke birpartzelazioa.

Nafarroako Gobernuak aukera eremua, industrialdea, ezarri zuen Ekai, Etxarren eta Urrietzola artean. Aurten 170.000 m<sup>2</sup> egingen dira, haietatik 100.000 industrialde izanen dira eta besteak bidea, borobil berri batekin Ekaiko errepediarekin bat egingen duena. Oloaren eratorriak ekoizten dituen Harivenasa enpresa 50.000 m<sup>2</sup>-ko partzelan ezarriko da. 30 lanpostu sortuko dituela aurreikusten da. Kapital nafarreko enpresari, Noianen duen lantokia txiki gelditu zaio eta Arakilera lekualdatuko da.

**ELKARREKIN HEZKUNTZA ERALDATZEN**

**IÑIGO ARITZA IKASTOLA**  
 ikastola@inigoaritza.eus  
 San Pedro, 16. Altsasu  
 948 562951

**ANDRA MARI IKASTOLA**  
 etxarri@ikastola.eus  
 Utzubartxiki, 3. Etxarri Aranatz  
 948 46 02 86

**TXIOKA HAUR IKASTOLA**  
 txioka.haur.ikastola@inigoaritza.eus  
 Santokristobarren, z/g. Altsasu  
 948 37 30 23

ikastolenelkartea



Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuaren logotipo berriaren aurkezpenen haren laguntzaileak elkartu ziren.

# Anitzartean, sakandar guztien zerbitzura

Sakanako Mankomunitateko kulturartekotasun zerbitzuak hamarkada bete du. Bere teknikariak nabarmendu du ibarreko jende guztiendako zerbitzua dela, ez soilik sakandar berriendako. Logotipo berria aurkeztean egin ditu adierazpenok

## SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak 10 urte bete ditu eta horretaz eta beste hainbat kontuetaz hizketatzeko Bego Zestau Baraibar teknikaria Belexe Irratian (FM 107,3 edo [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)) izan zen. Bera da zerbitzuan hasieratik dagoen teknikaria. “Zerbitzua 2008an

sortu bazen ere, 2006an hasi ginen aniztasunaren kudeaketa lantzen”. Aurreneko bi urteetan 4 hilabetez bakarrik aritu ziren langintza horretan, “proiektu bat aurrera eramaten: etorkinendako harrera plana”. Gobernuak emandako diru-laguntza batekin egiten zen lan hori.

Zestauk hainbat arlotako profesionalekin, sakandarrekin,

boluntarioekin, jatorri anitzeko pertsonekin koordinatu beharra zuen horretarako. “2007an koordinaziokoek esan ziguten: oso ona den zerbitzu bat jartzen diguzue, baina bat-batean desagertzen da. Hirugarren aldi batean hori gertatzeko bada, agian ez dugu kolaboratu nahi, gozokia jarri eta gero kentzen diguzuelako”. Horren aurrean Mank-i

proposamena egin zioten: “2008an diru-laguntza izanen zela bage-nekienez, 2007ko abenduan ez moztea eta proiektuari segida ematea. Eta behin diru-laguntza jasota, jasotakoaren arabera, orduan eten”. Horrela proiektuak hilabeteetan segida izatea nahi zuten. Mank-ek onartu zuen eta Immigrazio Zerbitzua izenarekin 2008an hasi zen.

Zestauk esan duenez, “jarraitzeak ekarri zuen sakandarrek zer nolako jarduerak egin planteatzeko aukera. Hortik aurrera ez du zerikusirik nolakoa zen zerbitzua, ezta sakandarren parte-hartzea ere. Gaur egun egiten diren jardueren %90etik gora sakandarrek planteatutako jarduerak dira”. Helburuekin bat baldin badatoz, eta aurrekontua kontuan izanik, jarduera horiek egiten dira. “Besteak profesionalei edo ikusten diren beharrei erantzuteko da”.

## Izen aldaketa

Hamar urtetan Immigrazio Zerbitzua izatetik Anitzartean kulturartekotasun zerbitzua izatera pasa da. Izen aldaketa baino zerbait gehiago. “Alde batetik, Immigrazio Zerbitzua izenarekin jendeak bakarrik etorkinei zuzenduta zegoela ulertzen zuen. Hori ez da inoiz horrela izan”. Zerbitzu horren helburu orokorretako bat da kanpotik etortitako jendeari ibarrean integrazteko bideak irekitzea eta erraztea. “Horretan, harrera gizarteak, Sakanak, zerikusi handia du”.

Izena aldaketaren atzean beste arrazoi batzuk ere badaude: “Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza horiek 2012an desagertu ziren. Orduan, Mank-ek zerbitzuaren jarraipenaren kudeaketa bere gain hartu zuen”. Horrek beste aldaketa bat ekarri

zuen: batzorde baten sorrera. “Garai horretan migrazioaz eta aniztasunaz hitz egiten zen. Migrazioak, joan-etorriko mugimenduak, sartu-aterako mugimenduak; azkenean, denoi eragiten digu”. Batzorde sortu berriaren izenaz hausnartu zuten baina ez zen egoki ikusi aldatzea.

Anitzartean izena 2017an hartu zuen. “Zerbitzua Sakanan bizi diren guztiek osatzen dute, edozein dela bere jatorria eta bere kultura”. Izenari kulturartekotasun adjektiboa gehitu zioten: “kultur aniztasuna kudeatzeaz aparte, mugitzen gaituena delako jatorri desberdinetako pertsonen arteko benetako hartu-emanerantz jotzea; kulturen arteko hartu-emanen. Aniztasun hori aberastasun gisa ikusita”. Ondorioz, estereotipoekin eta aurreiritziekin lan asko egin behar da.

## Gaur egun

Integratzaile bideak irekitzeko ildoari segituz, eta pertsonen arteko hartu-emanen bulkatu nahian, “antolatzen diren jardueren gehienetan bilatzen da jatorri anitzeko pertsonen arteko topaketa”. Esanguratsuenak dira Munduko Arrozak ekimenak. Zestauk dioenez, “ez da gastronomia-jarduera hutsa. Alderantziz, espazio publiko batean jatorri anitzeko pertsonak topatzeko balio duen jarduerak da”. Batzuek bere sorterriko jakia prestatuko dute. “Baina bakarren batek olerki bat irakurri nahi

**HARREMANETARAKO:**  
**648 070 710**  
**TELEFONOA EDO**  
**ANITZARTEAN@**  
**SAKANA-MANK.EUS**

ZUREKIN 1964 GEROZTIK

# Amaya

**OKINDEGIA**

🍞 | 🍰

<p><b>OLAZTI</b> 948 468 755 • Orreaga Kalea, 1</p>	<p><b>ETXARRI-ARANATZ</b> 948 461 660 • Kale Nagusia, 4</p>	<p><b>ARAIA</b> 945 314 572 • Andoni Urrestarazu, 3</p>	<p><b>VITORIA-GASTEIZ</b> 945 148 368 • Arriagako Atea, 12</p>
<p><b>ALTSASU</b> 678 323 403 • Iruña Hiribidea, 48</p>	<p>948 468 026 • Zumalakarregi Plaza, 3</p>	<p>670 389 017 • San Juan Kalea, 50</p>	<p>948 562 185 • Otadiko Kristo Deuna, 19</p>





Dabid Oroz (Mank-eko burua), Bego Zestau (zerbitzuko teknikaria) eta Youssef Chahor (kulturarteko bitartekaria).

badu, edo trentzak egin, edo umeendako jolasak prestatu nahi baditu, abestu... gehitu dezake. Beti ere, errespetuz. Ondoan egote horrek askotan ditugun sinesmen okerrak haus-tent joateko aukera ematen du”.

Zestauk gogoratu du asmo berarekin egin zela Etxarri Arantzen nazioarteko futbol txapelketa. Halakoek aldamenen arteko erlazioak normalizatzea ekartzen dutela esan du teknikariak: “kalean agurtzea, hizketan pixka bat gelditzea... Pauso txikiak, baina esanguratsuak direnak. Horrek integrazio bidean pauso gehiago emateko aukera emanen digu”.

### 10 urteko ikuspegia

Halako pausorik eman den galdetuta, Zestauk zalantzarik gabeko baiezkora eman du. “Horretan lagundu du zerbitzua herritarrei bideratuta egoteak. Askok harrituta bezala galdetzen dute: ah, orduan parte hartu dezaket? Jakina! Gauzak proposatzeko eta aurrera eramateko zein herritarrek baino hobea. Berea den horretatik, komuneko puntuak bilatuta, bakoitzak bere ikutua emanen dio. Baina komuneko hori indartuta. Zeren, azkenean, ohartzin gara uste duguna baino berdina gogor gaitela”.

Harremanetan nabari dela dio Zestauk, eta ikastetxeen adibidea jarri du: “parte-hartze aktiboa asko nabari da. Ikastetxetara nola hurbiltzen diren gurasoak. Planteamendu asko egin. Gura-

so Elkartean kide izanez eta modu aktiboan parte hartzen ari dira. Horrek kulturartekotasunaren zentzua ekartzen du”.

Aldi berean, antolatzen diren jarduera guztietan sentsibilizazioarako tarte bat uzten du zerbitzuak, sakandarrei hausnartzeko gonbidapena egiteko. “Migrazioen inguruan, horien zergatiaz, migrazio mugimendu horiekin dugun zerikusia, edo zurrumurruak nondik heldu diren, zer kalte egiten duten, nola ekidin ditzakegun, zergatik”.

Zerbitzuak antolatzen dituenak ibarreko herri bakoitzaren errealitateara egokitzen ditu. “Ez da kasualitatea Irurtzuneke proposamen pila egitea. Aniztasuna, portzentajetan, oso esanguratsua delako: % 15. Edo Olatzagutian % 13. Horrek markatzen du asko non jartzen duen indarra zerbitzuak: zer proposamen egiten dituzten herritarrek”. Herri guztietan egiten dira gauzak, “maiztasun gehiagorekin edo gutxiagorekin, proposamenen, beharren edo premien arabera”.

### Erreferentea

Sakanan zerbitzuak egindako lana ibarretik kanpo eredu gisa azaldu behar izan da behin baino gehiagotan. Giza-politiken inguruko jardunaldi batean parte hartu zuen Madrilek 2008an eta Anafe fundazioak proposatu zuen Nafarroatik Mank joatea. “Egoki jotzen zuten nola hasi ginen lanean eta eskualde ikuspegiak arreta piztu zien”. Ordu-

ra arte herrietan edo hirietan lantzen zen aniztasuna. Euskaltzaindiaren migrazioa eta euskarari buruzko jardunaldian parte hartu zuen 2009an.

Iruñeko Alternativas taldeak zurrumurruekin kontrako estrategiak nola lantzen zituzten azaltzera ere gonbidatu zuten zerbitzua. Pobreziari buruzko jardunaldi batzuetan, Tuteran, aniztasuna nola kudeatzen zen eta zurrumurruekin kontrako lanketa azaldu zituen. Eta 2016an Nafarroako zurrumurruekin kontrako saretik, Zaskatik, Mank-erajo zuten sare horren sortzaile izateko gonbidapena eginez.

Zaskan egonik, sakandarrak zurrumurruekin kontrako agente izateko ikastaroa egin zen 2017an. “Baina horretarako, lehenbizi eztabaida taldeak egin ziren, Sakanan zein zurrumurrurik zeuden identifikatzeko. Hori ere Nafarroako beste esparru batzuetan eredu gisa zabaltzen ari da”. Bestalde, zurrumurruekin kontrako materialak sortu eta banatu dituzte edo sentsibilizazioaren inguruko kanpainak sortu dituzte zerbitzuak balio batzuk sustatu dituztenak: (berdintasuna, aniztasuna, errespetua eta diskriminazioa eza).

**"ELKARBIZITZA  
BAIKOR BATERAKO  
BIDEA ERROTIK  
ERAIKITZEN ARI GARA  
SAKANAN"**

### Lorpenak...

Zestauk nabarmendu du jendearen parte-hartzearen gorakada izan dela, “jatorria edozein dela. Ez proposamenak egiteko garaian bakarrik. Jarduerak antolatzeke garaian, prozesu guztian ere. Proposamen bat jasotzen dudanean ez naiz ni bakarrik hasten. Talde anitza sortu eta elkarlanean hasiko gara, proposamen hori egiten diet”. Zubi lanaren eta akuiluaren lana dagokio halakoetan teknikariari.

Hasieratik arabiar hizkerako biztanleekin elkar ulertzeko zailtasun berezi bat ikusi zen, bai hizkuntza, bai kultura aldetik. Diru-laguntzen bidez batzuetan, boluntarioen bidez besteetan, neurri batean zailtasun horiei erantzuna ematen joan da, “bi norabideetako mezuak ulertzen direla bermatzeko”. Adabakiak ziren, premia hor zegoen, erabat ase gabe gelditzen zen. Horregatik, 2017az geroztik kultur bitartekari bat dago lanean, “ikaragarritzko lana egiten. Mezuak ulertu hala eta parte-hartzeko bideak ireki hala, izate edo pertenezia sentimendu bat ekartzen du. Harremanetan, elkar ezagutzeko gogoan, ilusioan... nabaritzen da. Bere zailtasunekin, eh!” Komunikazioa oinarria dela esan du Zestauk: “nola landuko dugu elkarbizitza baikor bat ez badugu elkar ezagutzen ere”.

### ... eta erronkak

Zerbitzuak 10 urteko jarduerak katalogo batean jaso ditu. Zestauk: “planteatzen diren baino jarduera gehiago egiten dira urtero. Hainbat sareak sortu dira. Sare anitzak gainera”. Sakanan egiten diren jarduerak askoren kostua zero eurokoa dela gaztigatu du. “Lorpen handia da. Erronka ere bada horri eustea”. Sakana guztirako sentsibilizazio kanpaina indartsu bat dute heldu den urterako ere.

Hamarkadako ibilbideko balorazioa “oso ona” izan dela esan du Zestauk. Eta eskerrak eman dute sakandar guztiei, apustu egiteagatik Mank-i berari, parte hartzen duten gehienak emakumezkoak dira eta haiei ere eskerrak eman, Guaixeri eta Beleixeri eta proposamenak egiten dituzten guztiei, proposamenik gabe ez litzatekeelako berdina landuko”.



**ANITZARTEAN**

## Zerbitzuak logotipo berria mustu du

Zerbitzuaren logotipo berria Elena Vera altsasuarraren diseinua da. “Eskua luzatzea adierazten du ikurra da” eta logotipoan tamaina desberdineko eta kolore askotako hiru esku ageri dira, elkarren ondoan, ikutzear ia. “Eskuen tamainak eta koloreek aniztasuna adierazten dute. Eskuan ondoan jarriz zerbitzuaren helburua gogoratzen dugu: kulturartekotasunera pausoak ematea, jatorri anitzeko pertsonen arteko hartu-emana benetakoa izatea. Elkar ezagutzetik harago joatea. Borobilean daude, denak plano berean daudelako, ez bat goian eta bestea behean, inor baztertzin ez dugula adierazteko. Eta hondoa beltza da, kolore horri balio baikorra emateko”.





Jose Luis Arasti gobernu ordezkaria eta REEko kideak subestazio batean. UTZITAKOA

## Goi tentsio linearako lau alternatiba daude

Castejon, Muru Artederreta eta Itsaso goi tentsioko lotzeko proiektuaren tramitazio ofiziala hasi da

SAKANA

Indarrean dagoen elektrizitate garraio sarearen planifikazioan jasotakoari segituz, Red Eléctrica Española (REE) Gipuzkoa eta Nafarroa lotuko dituen 400 kilovoltio (kV) argindar linea egiteko hasierako dokumentua ondu du. Agiriak lau trazadura aukera jasotzen ditu, baina momentuz ez da jakinarazi zein diren eta udalek horien berri aurki jasoko dutela aurreratu dute.

Proiektuari buruzko parte hartze prozesua egin zen maiatzean eta jasotako proposamenak kontuan izan dituztela azaldu dute REEtik. Gaur egun bi herrialdeak lotzen dituen eta Sakana zeharkatzen duten 220 kV-ko bi argindar linea daude. REE proposatzen dituen lau aukeretatik bitan aurreikusten da aipatutako lineetako bat kentzea eta haren natur berreskurapena egitea. Beste alternatiba batek aurreikusitakoa egitea proposatzen du eta azkenak, berriz, konponbide mistoa: linea bakoitzaren zatiak birpotentzia-zea eta zatiak desmuntatzea. Hori egiteko lehenetsuneko lau pasabide edo korridore aukeratu dituzte, 90 eta 104 km arteko luzera dutenak eta alternatiben arabera komuneko zatiak litzuzketenak.

### 220 kV-eko bi linea

REEk jakinarazi duenez, Sakana zeharkatzen duten bi lineak XX. mende erdialdekoak dira eta "gaitasun oso mugatua dute,

300 megavatio bakoitzak, egungo linea batek baino sei aldiz gutxiago. Beraz, dauden azpiegiturek ez diete gaur egungo beharrei erantzuten. Ezta eskualde energia planetan aurreikusitakoei ere". 2030 Nafarroako Energia Planean haize bidez argindarra sortzeko gaitasuna bikoiztea aurreikusten da, Europako aholkuak jarraituz eta klima aldaketaren kontrako borrokan 2050erako zehaztutako helburuak betetzeko: eredu berria eraginkorragoa eta jasangarriagoa izatea.

Lanek 70 milioi euroko aurrekontua lukete. Eta proiektua gauzatu "saretzea berritu eta indartzeko balioko du, baita Euskal Autonomi Erkidegoaren eta Nafarroaren arteko elektrizitatea garraiatzeko gaitasuna indartzeko ere. Segurtasuna eta horniduraren kalitatea hobetuko da. Eta eskaera puntuetara eraman behar den energia berri-eragintza kopuru handieneko sistemari integratzen da".

Egitasmoa ez da berria. Aurrenekotan lotura Lizarraldetik eta Arabako mendialdetik egiten zen. Tokiko eragileen kontrako jarreragatik bertan behera gelditu zen. Ondorengo proposamenetan Sakana zeharkatzen zuen eta ere bertan behera gelditu zen. Jendea Autopista Elektrikorik Ez! plataforman bildu da eta egitasmoak ez duela inolako justifikaziorik argudiatzen dute. Hautetsi ugariaren babesa dute. Plataforma bilera egiteko da egoera aztertzeke.



Ziordian murala egin zuten. UTZITAKOA

## AHTren kontrako borroka berean lotuta

AHTren kontrako aldarrikapenean bat egin du Arabako Lautadako eta Burundako hainbat gaztek

ALTSASU / ZIORDIA

Aguraingo eta Altsasuko gazte asanbladek antolatuta Abiadura Handiko Trenaren (AHT) kontrako martxa egin zen larunbat goizean. Gazte erakunde bakoitzak 10:30ean jarria zuen hitzordua, batek Araian, Urdiainen besteak. Adar bateko eta beste ibiltariak Ziordian bat egin zuten 13:00etan. 50 bat ibiltari iritsi ziren. Ziordiarrek prestatutako auzatearen ondoren, herri sarrerako paretan AHTren kontrako mezua pintaketa gisa utzi zuten.

AHT egitasmoa geldiarazteko eta tren soziala aldarrikatzeko eskatuz, Altsasun taldea eratu eta bere burua hitzaldi bat emanaz aurkeztu zuen abenduan 19an. Ordutik AHTren kontrako mezua bizitu egin da herrian. Besteak beste, egungo trenbidea bikoiztea, trenen pasen maiztasuna handitzea, trenbide azpiegitura nazioarteko trenbide zabalerara egokitzeko hirugarren erraila jartzea proposatzen dute. Horrela, herriak elkartuko lukeen trenbide soziala izanen genukeela diote AHTren kontrakoek. Eta, bide batez, AHT egiteko trenbide berri bikoizta eraikitzeke eta gero hura mantentzeko lanen diru gastua aurreztuko litzatekeela diote.

## Ulaiarri egindako lore eskaintzak soka ekarri du

Jesus Ulaiar Liziaga ETAK hil zuela 40 urte bete ziren igandean. Lore eskaintza hautsi zuten

ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranazko alkate izan zenaren senideek hilerrian ekitaldi pribatua egin ohi dute hura gogoratzeko. Semeetako batek larunbatean etxeko atean lore sorta lotu zuen, oroigarri gisa, Ulaiar etxearen parean hil baitzuten. Hurrengo egunean lurrean agertu ziren.

Nafarroako Gobernuak gertaera horri "oro bateko gaitzespena" adierazi dio. "Halako ekintzak deitoragarriak dira ikuspuntu etiko eta giza-ikuspuntu batetik. Baina, gainera, guztiz onartezinak dira bizikidetzaren erreal eta baketsu bat eraiki nahi dugunondako; non biktimek, Nafarroako gizartearen elkartasuna eta babes zintzoa sentitzen duten". Familiari elkartasuna adierazi zion.

Etxarriko EH Bilduk berretsi du "Sufrimenduaren Mapa eginez hartutako ildoak: 1936tik hona Etxarriko arrazoi politikoengatik 60tik gora hildako egon dira. Kasu gehienak epaitu eta argitu gabeak. Gertaera horien ondorioz sufritu duten eta sufritzen ari diren senide guztiei elkartasuna adierazten diegu, eta baita ere errekonozitua eta erreparatuak izateko eskubidea. Gure herrian elkarbizitzarako, bakebiderako eta askatasunerako ezinbesteko bidea da hori". EH Bildutik adierazi dutenez, "sufrimendu hori areagotu dezakeen edozein gertaera tamalgarria da, elkarbizitzarako atzerapausoa baita". Eta "gogor" salatu du "PPk eta Juan Antonio Extremerak, senide batzuen sufrimendua etekin politikoa lortzeko erabiltzea. Gataska elikatzen dute, eten gabean intoxikazio mezuak eta kanpaina mediatikoak bultzatuz, onura politikoen bila". EH Bilduk "sufrimenduen irakurketa partziala eta partidista egitea" salatu du, "PPk beste sinboloen erasoak ez ditu salatu".

## Txomin Floresen itzulera ospatu zuten Arbizun

Makina bat urte herriatik kanpo bizitzen eman ondoren, Txomin Flores herriari ongi etorria egin zioten larunbatean. Aurrena euskal iheslari politikoen ibilbidea, gaur egungo egoera eta bizipen pertsonalak hitzaldi batean aztertu zituzten, eguerdian. Udaletxean egindako hitzaldian 80 bat pertsona elkartzu ziren eta bertan Mikel Kortak (Kalera kalera dinamikakoa) eta Lurdes Mendinueta eta Koldo Flores iheslari ohiek hartu zuten hitza. Ekitaldia larunbatean hil zen Oier Gomez preso ohiaren aipamenarekin hasi zen.

Kortak euskal erbestearen historiaz eta bilakaeraz hitz egin zuen. 70 bat dira gaur egun dauden euskal iheslariak, horietako 14 deportatuak. Euskal iheslari eta deportatuen auzia bideratu beharraz ere mintzatu zen, eta Kalera kalera dinamika horretarako proposatu dituen gako nagusien berri eman zuen. Ondoren, 120 lagun inguru bildu ziren mahaiaren bueltan.



Kontzentrazioan sariarekin. ALTSASU GURASOAK

## Altsasuko Gurasoendako Argia-sustapen saria

Argia aldizkariak urteroko sariak banatu zituen ostiralean. Sustapen saria Altsasuko Gurasoak jaso zuen, "herriatik sortutako elkartasun eta justizia aldarria jende ugariengana zabaltzeagatik". Iluntzeko kontzentrazioan sariarekin talde argazkia egin zuten altsasuarrek. Beste sari bat Pello Urzelaik jaso zuen, Berriaren indarkeria matxistaren biktimen mapagatik.

## Hamar urterako herriaren oinarrien aurkezpena

2018ko topaketetako ondorioak udaletxean aurkeztuko dira bihar, 18:00etan. Haurtzaindegi zerbitzua izanen da

BAKAIKU

Bakaikuko Udalean herritarren iritzia ezinbestekotzat jotzen dutenez, joan den urtean hainbat topaketetara gonbidatu zituen herritarrak. Topaketetan bakaikuarrek 2027an herria nola iza-

tea nahiko luketen irudikatzen eskatu zien. Emun kooperatibak gidatu du bakaikuarren hausnarketa kolektibo hori, bi galderetan oinarritzen zena: norantz jo nahi dugu? Zer-nolako herria nahi dugu etorkizunean?

Dinamikak Nafarroako Gobernuak emandako 5.400 euroko diru-laguntzarekin eta Sakana-ko Garapen Agentziaren aholkuekin eta laguntzarekin egin da. Emunekoek gidatutako hainbat topaketaren eta elkarriketaren bidez bakaikuarren erronkak eta lehentasunak zein diren zehazten joan ziren. Eta orain horiek aurkezteko garaia iritsi da. Ondoren, 19:00etan, “herri gisa emandako pausoa ospatzeko” catering-enpresa batek presatutako auzatea izanen da.



Bakaikuko herriaren etorkizunari buruzko jardunaldietako bilera bat. UTZITAKOIA

## Frontoia den edo txerri-korta den galdetzen dutenean

Frontoian zikinkeria pilatu da eta pilota eskolaren entrenamenduetan eta partidetan arazoak sortu ditu

ETXARRI ARANATZ

Latak, poltsak, botilak eta kristalak, zigarrokinak, pixa, kaka... Euskal Herriari frontoiak pilotalekua baino azken aldian “piper” itxura hartu duela dirudi. Bakarren batzuk pilotalekua edateko, jateko, kontsumitzeko eta komun bezala erabili izan dute. Etxarri Aranazko Udalak salatu duenez, zikinkeria nagusi zen eta, ondorioz, bai udaleko langileak bai pilota eskolako kideak garbitzen ibili beharra zuten. Horretaz aparte, frontoia argiztatzeko argi-koadroko kutxako giltzarrapoa bostetan puskatu dute. Baimenik gabe argia erabili izan dute eta ondoren itzali ez eta gaur eta egun piztuta gelditzen zen. Argindar kontsumoak eta langileen garbiketa lan-orduek udalari gastu handia ekarri diote.



Zikinkeria frontoian. UDALA

letxetik bulego ordutegian pasa beharko du (10:00etatik 14:00etara) edo kultura@etxarriaranatz.eus e-postara idatzi. Frontoia partidu edo jarduera publikoetan herritar guztiendako irekita egonen da.

Udala langileekin, pilota eskolarekin eta erabiltzaileekin hitz egin ondoren, egoera zuzendu asmoz, behin behineko neurri bat hartzea adostu dute: frontoia ixtea eta hara soilik giltzarekin sartzea. Guztien asmoa da pixkanaka-pixkanaka frontoiaren ordutegia zabaltzea, zikinkeria pilatzen den edo ez aztertu eta garbi mantentzen bada, lehen bezala zabalik egotera bueltatzea. Beraz, baimena duten elkarrekin eta eragileek erabili ahalko dute frontoia. Etxarriarren batek kirola egiteko erabili nahi badu, udaletxean baimena eskatu eta giltza jaso beharko du. Horretarako, uda-

Etxarri Aranazko Udalean espero dute “egoera konpontzea, eta frontoiaren erabilera okerra egiten duten haur eta helduek zuzen jokatzeko, batzuegatik herritar guztiak kaltetuak izan daitezkeelako”. Bide batez, oharra egin dute: “zikinkeria (txutxe-poltsak, latak, jana, aluminioak, pipak, zigarrokinak...) lurrera botatzeko ohitura oso zabalduta dago: ikastolako eta eskolako patioan, plazan, tabernen aurrean, txutxeak saltzen diren establezimenduetan... Horrek guztiak zikin eta zabarrak itxura ematen dio gure herriari, eta kalte handia egiten dio inurruneari”.






**Ariane Atxa Gamboa**  
(Etxarri Aranatz)

Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza graduako 3. maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan.

**Zergatik aukeratu zenuen Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza gradua?**

Hasiera batean, beste askok bezala, ez nuen nire burua inon ikusten, eta ondorioz, ezer argi eduki gabe sartu nintzen gradu honetara. Diseinua gustuko nuela jakinik bakarrik.

**Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?**

Nire harridurarako, lehenengo urtetik hasi ginen gure ideiei forma ematen eta, ondorioz, industria diseinatzaileraren lana zein den hasiera hasieratik jakin

nuen. Proiektuen bidezko ikasketaren bidez, lehenengo urtean kontzeptuak sortzeko gai izan ginen, bigarren urtean kontzeptu hauek nola garatu ikasi genuen, eta aurten, sortu ditugun produktuen salmentan ere sakonduko dugu.

**Gradutik eta unibertsitatez zer dago gehien gustatzen zaizuna?**

Atzera begira jarrita, hasiera batean uste zenituen baino gauza gehiago sortu dituzula konturatu zara eta, hori gutxi balitz, zer egiteko gai zaren ikus-teak ematen duen satisfakzio eta motibazio mailak egindako

aukeraketan asmatu duzula jabetzen laguntzen dizu. Izan ere, ez dago zuk sorturiko zerbait eskuartearen edukitzea bezalakorik!

**Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?**

Proiektuez gain, enpresa zein erakundeetan egindako praktikaldiei esker, unibertsitatean ikasitakoak duen garrantziaz jabetzen zara, ikasten ari zaren horrek zure etorkizunean benetan lagunduko zaituela. Motibazioa, sormena eta gogoia dira gakoak, osagai hauekin zure lanek ez dute mugarik.

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)



Sakanako ikuspegia Ergako tontorretik urte hasieran.

#### SAKANA

Foru gobernari eusten dion laukoaren aldeko eta oposizioaren kontrako botoekin, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legea onartu zen atzo. Lege berriak Nafarroako lurraldea berrantolatzea planteatzen du, tokiko administrazioaren antolaketa berria. Horretarako, egungo mankomunitate sektorialak, administrazio zerbitzuen batasunak eta udalez gaindiko beste entitate batzuk integratuko dituen 12 eskualderen sorrera ekarriko du. Horietako bat Sakana da.

Legea, hainbat gobernuren aspaldiko asmoa, “gehiegizko diren udalez gaindiko entitateen ugaltzarekin bukatu nahi du, kasu batzuetan ez baitira eraginkorrak”. Legeak finantzaketa eredu berria ezartzen du, eskumenen banaketa argiagoa. Legea onartzeak ekarriko du Toki Administrazioa arautzen duten lege nagusiak aldatzea, Nafarroako toki entitateetan eginen diren aldaketa sakonen oinarri izanen da. Hortik aurrera, lurralde-egitura berria behin betiko zehaztuko duten arau-aldaketak etorriko dira.

#### Sakana

Sakanako Mankomunitateko presidente David Orozek esan digunez, legea onartu arte zain egon dira eta, beraz, ez dakite noiz abiaraziko duten ibarra eskualde bihurtzeko tramitazioa. Bere iritzi pertsonala eman digu:

# Eskualdea izanen gara

Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legea onartu zuen atzo parlamentuak eta herrialdean sortuko diren 12 eskualdeetako bat izanen da Sakana. Eragin nabarmenena: hiru oinarrizko gizarte zerbitzuak bakarrean elkartuko lirateke

“baliteke eskaera egitea, haste-ko. Baina susmoa dut heldu den legegintzaldirako utziko dugula”. Legeak ezartzen duenez, toki entitateek hamabi hilabeteko epea izanen dute eskualde baten sorrera-prozesua abiatu ahal izateko. Udalak ados daudela, behin bidea hasita, eskualde bakoitzerako Foru Lege propio bat onartu beharko dela gaineratu du. Udalek ezezkoa emanen balute, hurrengo udal hauteskundeak izan arte ezinen litzateke eskualdea sortzeko prozesua berriz abiarazi.

**ESKUMENEI ETA BETEBEHARREI AURRE EGITEKO ASKITASUN EKONOMIKOA BERMATU NAHI DU**

Sortzea aurreikusi diren gaintzeko eskualdeekin alderatuta Sakanak bidea egina du. Hala esan diote Orozi beste toki erakundeetako ordezkariak. Izan ere, ibarreko udalek euren hainbat eskumen Sakanako Mankomunitatearen esku utziak dituzte dagoeneko: euskara, kirola, hondakinak jaso eta biltzea, kulturartekotasuna, garapen agentzia eta ur hornidura. Legeak atea zabaldu dio eskumen gehiago bateratzeko. Legegintzaldi honetan zenbait udalek haur eskolen beharrari erantzuteko lege horren zain zeuden.

Onartutako lege berriak aurreikusten du eskualdeen arduraz izatera pasako direla gizarte zerbitzuak. Halako hiru mankomunitate ditugu Sakanan eta denek bat egin beharko dute. Kontua da Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak ez

duela soilik Arakil aldea hartzen, Larraun ere. Beraz, kasu horretan, lege berriak ezarritako prozedurei jarraituz, eskualdeen artean eskumenak banatzeaz aparte langileen egoera ere zehaztu beharko da.

#### Eskumenak

Atzo onartutako legeak eskualdeei honako eskumenak aitortzen dizkie: udalez gaindiko gizarte zerbitzuak; uraren goi hornidurarako sareak udalez gaindiko eskalan; hondakinen tratamendua udalez gaindiko eskalan; lurraldearen antolamendua eta

**KONTZEJU IREKIA ERATU DAITEKE 50 BIZTANLE BAINO GEHIAGO DITUZTENETAN**

hirigintza (oinarrizko legeriak udalerrindako erreserbatutako eskumenak eta Foru Administrazioari dagozkionak ezertan galarazi gabe); eta idazkaritzako eta kontu-hartzailetzako administrazio zerbitzuak kontzejuetan, eskumenen kudeaketa partekatzeke araubiderik ez dagoenean, eta 1.500 edo 3.000 biztanletik beherako udalerrietan, hurrenez hurren.

Berezko eskumenez gain, eskualdeak ur edangarriaren behe hornidurako zerbitzuak emanen ditu, hondakin uren ebakuzio eta tratamendukoak, eta hiri hondakin solidoen biltzea eta kudeaketakoak. Salbuespena: eskumenaren titular diren udalerriek bertan behera uztea kasuan kasuko mankomunitateari eginiko eskuordetzea. Lege sektorialekin propio aitortutako eskumenak ere kudeatzeko aukera izanen dute eskualdeek. Gainera, eskualdeko udalei eta kontzejuei, bereziki ahalmen urriagoa dutenei laguntza eta sustengua emateko aukera izanen dute. Udalek utzita eskualdeak bestelako eskumenak bere gain hartzeko aukera izanen dute ere. Legeak eskualde batean azpieskualdeak sortzeko aukera ematen du.

Eskualdeen betebeharra da laguntza ematea administrazio elektronikoa ezartzeko eta mantentzeko, eta, bereziki, beren toki entitateen (udalak eta kontzejuak) gardentasun-atariak sortu eta kudeatzeko. Bestetik, toki entitateek berreskuratu egin behar dute immatrikulatutako ondarea. Ia soilik Eliza Katolikoak immatrikulatu du.

#### Bestelakoak

Eskualdea bigarren mailako toki entitatea da, udalen oinarrizko lehen mailaren menpekoa. Eskualdeko batzarra, lehendakaria eta gobernu batzordea izanen dira. Batzarreko kide kopurua eskualde eskualde ezarriko da, eskualde bakoitza sortzeko foru legean. Bestetik, egungo mankomunitateetako eta udalez gaindiko entitateetako langile guztiak eskualdeetan sartuko dira. Biztanleriaren arabera idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak zehazten ditu. Gainera kontzejuen eta udalen arteko harremana arautzen da. Lege berriak toki entitateendako finantzaketa eredu berria dakar.

# Ongi etorri

Sakanako  
HERRI  
ESKOLETARA



## KALITATEA

Ikasleriaren garapen integrala helburu izanik etenik gabeko hobekuntzan oinarritzen den kalitatezko hezkuntza eskaintzen dugu

## ELKARBIZITZA

Gure eskoletako aniztasuna eta aberastasunetik abiatuz, elkarbizitza oinarritzko balore bezala lantzen dugu

## EUSKARA

Ikasle euskaldun eleanitzak sortzeko lehentasuna dugu

## PEDAGOGIA BERRITZAILEAK

Pedagogia berritzaileak erabiltzen ditugu ikasleria guztiaren beharrei erantzuteko

## BERDINTASUNA

Eskubide eta aukera berdintasuna sustatzen dituen eskola gara

## INKLUSIOA

Aniztasunari erantzunez, ikasle orok dituen behar desberdinetatik abiatuta, denontzako aukerak sortzen ditugu

## PUBLIKOA

Herriko eskola, denon eskola gara



**IRURTZUNGO HERRI ESKOLA**

<http://atakonkondaeu.educacion.navarra.es>  
[cpirurtz@educacion.navarra.es](mailto:cpirurtz@educacion.navarra.es) | 948500228  
GE: atakonkondosapyma@gmail.com



**URDIAINGO HERRI ESKOLA**

[cpurdiain@educacion.navarra.es](mailto:cpurdiain@educacion.navarra.es)  
948468345  
GE: geurdiain@gmail.com



**ALTSASUKO HERRI ESKOLA**

<http://zeipandieskolia.educacion.navarra.es>  
[cpaltesu@educacion.navarra.es](mailto:cpaltesu@educacion.navarra.es) | 948564839  
GE: zelandiapyma@gmail.com



**SAN DONATO HERRI ESKOLA**

[www.edpamikoeskola.com](http://www.edpamikoeskola.com)  
[cpesbarri@educacion.navarra.es](mailto:cpesbarri@educacion.navarra.es) | 948567003  
GE: apymasandonato@gmail.com



**LAKUNTZAKO HERRI ESKOLA**

<http://lakuntzako.eskola.educacion.navarra.es/web2>  
[cpalakunt@educacion.navarra.es](mailto:cpalakunt@educacion.navarra.es) | 948576020  
GE: apyma@hotmail.com



**ITURMENDIAKO HERRI ESKOLA**

[cpiturme@educacion.navarra.es](mailto:cpiturme@educacion.navarra.es)  
948563414  
GE: iturmendikogurasoak@gmail.com



**UHARTEKO HERRI ESKOLA**

<http://uhartemakulgoeskola.educacion.navarra.es>  
[cpuharte@educacion.navarra.es](mailto:cpuharte@educacion.navarra.es) | 948567100  
GE: sanmiguelapyma@gmail.com



**OLAZTIKO HERRI ESKOLA**

<http://sites.google.com/ku/educacion/navarra/es/olaztiako-eskola>  
[cpolaztagi@educacion.navarra.es](mailto:cpolaztagi@educacion.navarra.es) | 948563307  
GE: apymabados@yahoo.es



**ARBIZUKO HERRI ESKOLA**

[arbizukoherrieskola.blogspot.com](http://arbizukoherrieskola.blogspot.com)  
[cparbitzu@educacion.navarra.es](mailto:cparbitzu@educacion.navarra.es) | 948460763  
GE: arbizueskolakofamiliak@gmail.com



Aurreko urteko kinto olaztiarrak. ARTXIBOA

## Kinto ospakizunak atzo hasi eta asteartera arte iraunen dute

Sakanako kinto guztietan euren ospakizunetan hasten goiztiarrenak olaztiarrak dira. Bihar adin guztietakoak

### OLATZAGUTIA

Olatzagutiko XXI. mendeko aurreneko kintada zazpi gaztek osatuta dago: Gissel Aristu, Julen Lopez de Goikoetxea, Leire Olo, Mikel Olo, Lander Bados, Sara Alberdi eta Asier Andueza. Kintada gazte gehiagok osatzen dute, baina kanpoan daudelako edo beste herriren batean ospatuko dutelako, zazpikote hori da aurtengo protagonista. Atzo arratsaldean poteatzera elkartu ziren eta kinto ospakizunak iragartzeko etxajuak bota zituzten. Ondoren afaltzera joan ziren.

Gaur eta bihar egun garrantzitsua da kintoendako. Neskak baserritar jantzi koloretsuak soinean dituztela aterako dira kalera. Mutilak, berriz, mahoizko prakak, ator txuria, bularraldea gurutzatzen dieten zapi koloretsuak, lepoan zapia eta txapela jantziko dituzte. Mutilek, gainera, eskuan hainbat zinta-

rekin edertutako makila izanen dute. Batzuek eta besteek gainetik edo kaikua edo brusa beltza jantziko dute.

Kinto-eskea egiteko zazpikote gazteak brodatutako poltsak eramanen ditu eskuetan. Izan ere, horretan ariko dira gaur eta bihar Itxabela txarangaren laguntzaz. Jasotako diruarekin bost egunetako ospakizunak ordaindu nahiko dituzte.

Kintoek olaztiarrei eskerrak emateko modua ere bada larunbaterako prestatu duten erromeria. Bidean taldeak, dantzarako musika jarriko du 19:30etik 22:00etara gaztetxean. Izan ere, Olatzagutiko kindata guztiek hitzordua jarria dute biharko, bazkaltzera gelditu eta festa giroa izanen da herrian. Kale giroa bizitzeko gauerditik aurrera udalak kontratatutako elektrotzaranga bat ibiliko da bazterrek giroten.

# Kinto ospakizunetarako atzera kontua martxan

Kintoek dantzen azken entsegua izanen dute gaur. Elkar hobeto ezagutzeko ilbeltzean hainbat larunbatetan hitzordua jarri dute. Asteartean ospakizuna hasteko dena prest dute eta larunbatera arte haiek izanen dira ospakizunen protagonista

### ALTSASU

2001ean jaiotako kintoek kaleak hartuko dituzte asteartean, 07:00etatik aurrera. Ainhoa Lopez Sanchez, Oihane Lakuntza Zelaia, Jon Ander Borrega Arza eta Ekain Alegre Gil buruzagi dituztela, zilarrezko erretilua eskuan, altsasuar eta bisitari guztiei eskean ariko zaizkie. Azken horien eskuzabaltasunaren esku egonen da aurtengo kintoek ospakizuneko gastu guztiak ordaintzeko adina diru ateratzea. Horretarako, kintoek opilak ere salduko dituzte. Astearte goizean herrian barna ibilaldia egingen dute, eta opil bat saltzen duten bakoitzean, esker ona adierazteko, jota eta porrusalda dantzatuko dute. Ibilbide hori udaletxean alkatea agurtu eta gero abiatuko dute, 09:00ak aldera. Buruzagiek hainbat kintoren laguntza izanen dute eginkizun horretan, baita Fernando Perez Paniagua eta Leire Rodriguez Sanchez zahato eramaileenak ere.

Mutilek praka eta ator txuria jantziko dute, bular aldean gurutzatzen diren zapiak eramanen dituzte eta eskuetan gorosti makila eramanen dute, brodatutako edo marraztutako zintez edertuta. Neskek, berriz, baserritar jantzi koloretsuak jantzi-



Kintoak Burunda frontoian entseatzeko.

ko dituzte. Eta guztiek, osagarria, kaikua. Hala jantzita ibiliko dira goizean goizetik. Bestetik, haiekin bat egingen dute aurtengo zilarrezko, urrezko eta platinozko kintoek.

### Dantza

53 kintoak ilbeltzaren 8an hasi ziren zortzikoa, jota eta porrusalda dantzatzeko entseguetan. Dantza irakasle lanetan eskarmentua duten Txetxo Claverrekin batera eginkizun horretan estreinako bi emakumezko aritu dira: Maixa Lopez de Ural-

de eta Aitziber Etxaiz (ikus azken orria). Izan dira egunak, ostiralak batez ere, makina bat jende elkartu dena entseguak ikustera. Ikasitakoa jendaurrean asteartetik larunbatera emanen dute, 19:30etik aurrera. Egunero dozena bat kintok dantzatuko dute. Asteartean duela 25 urte kinto izandako zortzikoa gehituko zaio.

Kinto ospakizunetan ohikoa denez, gau bakoitzean taberna batek berandu arte zabalik egoteko baimena du: Lezea, Koxka, Xume, Arkangoa eta Gure Etxea.

## Kalez kale Santa Agedari koplak kantari ariko dira

Asteartean da sainduaren eguna eta bezperan, astelehenean, aterako dira kantari taldeak

### SAKANA

Santa Ageda gogoratzen duten koplak kantatzera deitu ditu **irurtzundarrak** Aizpeak, euskaltzaleen topaguneak. Segizioa plazatik 18:00etan abiatuko da. **Irañetako** koplak kantatuko

dituen abesbatza Txapel Azpi elkartetik 18:30ean abiatuko da. **Lakuntzarrak** plazan elkartuko dira, 16:30ean. Baserritarrez jantzita, etxez etxe kantu-eskean arituko dira. Jasotakoarekin merienda egingen dute kultur

etxean. Gauean, Lakuntzako abesbatza aterako da koplak abestera, kriseiluak eskuan. Jasotakoarekin afaria egingo dute elkartean. **Etxarri Aranzten** musika eskolan jarri dute hitzordua, 17:45ean. Ikasleak, hainbat musika tresna lagun dituztela, herrian barna kantatzera aterako dira. Segizioa abesbatza txikiko eta handiko kideekin osatuta egonen da. Ibilbidea 18:30ean plazan despidituko dute eta han, denendako, txokolate-jana izanen da.



Lakuntzan Santa Agedari kantari. ARTXIBOA

## Nafarroako Mendi Lasterketen Zirkuituan Sakanako 5 proba

**MENDI LASTERKETAK** Tritoiena, Triku-Trail, Uharte-Beriain KB, Mendira Joan-Etorria eta Lakuntza-Aralar dira probak

Sakanako mendi lasterketek pisu handia izango dute Nafarroako Mendi Lasterketen Zirkuituan. Zehazki, 11 probek erabakiko dute Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketa eta horien artean Sakanan jokatzen diren lau proba daude: Arbizuko kanpinean jokatuko den III. Tritoiena (ekainak 16), Etxarri Aranazko VI. Triku-Trail (ekainak 30), XI. Uharte Arakil Beriain Kilometro Bertikala (irailak 22) eta Etxarri Aranazko XLIV. Mendira Joan-Etorria (urriak 6). Horretaz gain, ekai-

naren 9an jokatuko den XVII. Lakuntza-Aralar mendi lasterketa, aldi berean, Nafarroako Kluben Arteko Nafarroako txapelketa izango da.

### **EHko Rankinga**

Bestalde, 2019ko Euskal Mendi Federazioko Mendi Lasterketen Rankinga izeneko txapelketa antolatu du Euskal Mendi Federazioak. Guztira 19 probek puntuatzen dute, Lakuntza-Aralar, Triku-Trail eta Uharte Arakil Beriain Km Bertikala mendi probek tartean.

## **PILOTA** Pilotajaukuko Gabonetako Txapelketa

Altsasuko Pilotajauku klubak Gabonetako Pilota Txapelketa antolatu zuen Eguberritan, lau mailatan: benjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak.

Txapelketako emaitzei erreparatuta, benjaminetan, Urko Lanzak 18 eta 5 irabazi zion Oier Olaberriari eta haurren mailan, Oier Mitxelenak 18 eta 13 hartu zuen menpean Patxi Azpeitia.

Kimuetan, binaka, Hodei Ulaia- rrek eta Urko Lanzak 18 eta 12 irabazi zieten Eñaut Gastesiri eta Oier Carabias eta, emakumezko kimuetan, buruz buru, Iraide Bergarak 18 eta 13 hartu zuen menpean June Lumbreras.

Bukatzeko, kadeteetan, Hodei Alegrek eta Aritz Ulaiarrek 18 eta 9 irabazi zieten Aimar Lezeari eta Aritz San Romani eta, emakumezko kadeteetan, buruz buru, Udane Bergarak 18 eta 5 hartu zuen mendean Irati Lumbreras.



## Aitor Zubietaren 'Bostekoa'

**KIROLDEGIA** Euskal Telebistak azaldu du otsailaren 14tik aurrera Aitor Zubietari ohi etxarriarrak *Bostekoa* izeneko programa eskainiko duela. 5 kidez osatutako 8 herri edo talde lehiatuko dira elkarren kontra; bost herri kirol probatan aritu beharko dute –sokatira, harri-jasotzea, txingak, trontza eta giza proba– eta onenek egingo dute aurrera.

# Igor Arrieta Munduko Ziklokros Txapelketan

**ZIKLOKROSA** Mundialak asteburuan jokatuko dira, Danimarkako Bogense hirian, eta Aralar taldeko txirrindulari uhartearra junior mailako proban lehiatuko da, larunbatean, 11:00etan, Espainiako selekzioarekin

Larunbatean eta igandean Munduko Ziklokros Txapelketa jokatuko da Danimarkan, Bogense hirian. Espainiako selekzioak bertan aritzeko hautatutako 18 txirrindularien artean bost euskaldun daude: Javier Ruiz de Larrinaga (elitea), Luisa Ibarrola (23 urtez azpikoa), Xabier Murias (23 urtez azpikoa), Ibai Ruiz de Arkaute (juniorra) eta Igor Arrieta Lizarraga uhartearra (juniorra).

Arakil Txirrindularitza taldean trebatzen da Igor Arrieta Lizarraga (Uharte Arakil) eta aurreko urtean kadete mailan sekulako denboraldia egin eta gero –errepidean eta baita ziklokros-sean ere–, aurten, 2019an, junior mailan ibiliko da Arrieta. Errepideko egutegia despeditzera-koan, ziklokros-ean lehiatzen da Arrieta, modalitate honetan ere bikain, eta bere ibilbidea gertutik jarraitu dute Espainiako Txirrindularitza Federazioan. Horrela, Igor Arrieta asteburuan jokatuko den Danimarkako Ziklokros Mundialean Espainiako selekzioan aritzeko hautatu du Pascual Momparler Espainiako ziklokros selekzionatzaileak, junior mailako proban.

Junior mailako Ziklokros Mundialean Igor Arrietak eta Ibai Ruiz de Arkautek talde lana egin beharko dute Carlos Canal eta Gonzalo Inguanzo euren taldekideendako. Canal galiziarra berriki hirugarrena izan zen Frantziako Pont Chateauko Munduko Kopan, eta Gonzalo Inguanzo kantabriarra ilbeltzaren 1eko Sven Nys Sari Nagusian bigarrena sailkatu zen. Beraiek dira Ziklokros Mundialean aurrean egoteko Espainiako selekzio-ko hautagai nagusiak eta Arrietak eta Ruiz de Arkautek lagundu beharko diete, Migel Sanchez beste taldekidearekin batera.

Tenperatura oso hotzak espero dira Danimarkan, eta izoztu-



Igor Arrieta, Nafarroako Erlojupekoan. MARTIN EARLY

## **JUNIORREK PODIUMA LORTZEKO AUKERA GARBIA DUTELA ESAN DU MOMPALAR SELEKZIONATZAILEAK**

tako zirkuitua izango dute aurreko txirrindulariek. Juniorren lasterketa larunbatean jokatuko da, 11:00etan hasita. “2016 urte- tik, Felipe Ortsek 23 urtez azpikoan zilarrezko domina lortu zuenetik, ez dugu izan Mundiale- tan podiuma lortzeko aurten juniorretan dugun bezalako aukera garbirik. Zuhurrak izan behar dugu, juniorrak oso gazteak direlako eta euren lasterketa oso zailak direlako, estres handikoak, eta matxuraren batek edo edozein talkak buruko postuetatik kanpo geratzeko ekartzen duelako” aipatu du Pascual Momparler selekzionatzaileak.

### **Gainontzeko taldeak**

Juniorren taldeaz gain, gizon-koen eliteko Espainiako selekzio-ko taldea Felipe Ortsek, Ismael Estebanek eta Javier Ruiz de

Larrinagak osatuko dute, emakumezkoen eliteko taldea Aida Nuñok, Lucia Gonzalezek eta Sandra Trevillak, 23 urtez azpiko gizon-koen taldea Jofre Cullellek, Ivan Feijóok eta Xabier Muriasek eta 23 urtez azpiko emakumezkoen taldea Luisa Ibarrolak, Paula Diazek, Sofia Rodriguezek eta Irene Trabazok. Pascual Momparlerrek adierazi duenez, “Espainiako selekzioak inoiz izan duen talderik onenarekin” ekingo diote Ziklokros Mundialari. 23 urtez azpiko gizon-koen taldean 13:00etan ariko dira, emakumezko eliteak larunbatean 15:00etan eta gizon-koen eliteak igandean, 15:00etan.

### **Seguros RGA taldeak Rural Kutxa taldea babesten jarraituko du**

Seguros RGA taldeak, Rural Kutxako aseguru-etxeak, Rural Kutxa txirrindularitza taldeko bigarren babeslea izaten jarraituko du, bi urtez. Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko managerra, Juan Manuel Hernandez altsasuarra, oso pozik dago babesle- tza berri izanagatik. “RGA bulkatzen gaituen motorretako bat da” adierazi du.

# Martijak eta Zabaletak aukerak; Ezkurdiak, ez

**PILOTA** Ezkurdiak eta Galarzak galdu egin zuten Elezkano II.a-Rezustaren kontra eta Binakakoan aurrera egiteko aukerarik gabe geratu dira; Altuna III.a-Martija eta Iribarria-Zabaletaren arteko lehia ikusgarrian, polemika tarteko lehenak gailendu ziren

Elezkano II.ak eta Rezustak badakite Binakako finalerdietarako sailkatu direla (8 puntu). Baina gainontzekoen parte-hartzea oraindik ez dago zehaztua eta bizi-bizirik dago, beraz, Binakakoa. Olaizola II.ak eta Albisuk 7 puntu dituzte, Iribarria-Zabaletak eta Artola-Mariekurrena II.ak 6 puntu, Altuna II.a-Martijak eta Bengoetxea VI.a-Imazek 4 puntu, Ezkurdi-Galarzak 3 puntu eta Urrutikoe-txea-Aretxabaletak 2 puntu. Hauxe da panorama, hasierako ligaxka despeditzeko 4 jardunaldien faltan.

## Datorrena

Ostiralean, Urdulizen, Bengoetxea VI.aren eta Imazen kontra ariko dira Elezkano II.a eta Rezusta. Elezkano II.ak eta Rezustak sentsazio onekin jarraitu nahi dute, ligaxkako lider, eta horretarako irabazi nahi dute. Bere aldetik, Bengoetxeak eta Imazek lau puntu dituzte, Olaizola II.a eta Albisu irabaztetik datoz, animoak goian, eta bosgarren puntua lortzea, hori da euren helburua, finalerdietarako borrokan jarraitzeko.

## Ezkurdia, aukerarik gabe

Larunbatean, Idiazabal, Ezkurdi eta Galarza Olaizola II.aren eta Albisuren kontra ariko dira. Bi bikoak galtzetik datoz. Hendaian jokaturako partidaren Elezkano II.ak eta Rezustak 22 eta 10 irabazi zieten Ezkurdiari eta Galarzari. Partida txarrean, Galarzak eta Ezkurdiak akats nabarmenak egin zituzten. Ondorioz, 3 punturekin, Arbizukoak eta Baraibarkoak ez dute Binakakoan aurrera egiteko aukerarik, baina itxura hobetzea da euren erronka eta irabazterako aterako dira. Olaizolak eta Albisuk, aldiz, euren zortzigarren puntua lortu nahi dute finalerdian egotea ziurtatzeko. Beraz, lehia estua espero da.



Martija-Altunaren eta Iribarria-Zabaletaren partida txapelketako onena izan zen. ASPE

## MARTIJA IKUSGARRI ARITU ZEN: 756 PILOTAKADAKO PARTIDAN, BERAK 200 JO ZITUEN

**Zabaleta, zazpigarrena lortzera** Bihar, larunbatean, Labritek, jardunaldiko partida interesgarriena dena hartuko du (ETB1). Iribarriak eta Zabaletak Arto-la eta Mariezkurrena II.a izango dituzte aurkari. Bi bikoek seina puntu dituzte eta jokoan dagoen puntua urrezkoa da biendako, balantza alde batera edo bestera mugituko duelako; puntako partida aurreikusten da.

Iribarria eta Zabaleta igandean Altuna III.aren eta Martijaren kontra galtzetik datoz, polemika tarteko. Hasieran Iribarriak eta Zabaletak alde atera zuten; Martija erasotzea izan zen euren estrategia. Baina Etxeberrikoak bikain erantzun zuen, defentsa ikaragarria egin zuen eta partidako onena izan zen. Berak eta Altunak erremontatu zuten, eta 21 eta 20 aurreratu ziren. Hor gertatu zen polemika: Mar-

tijak kalanbre ikusgarria izan zuen, hurrera erori zen eta erortzerakoan Iribarriari traba egin zion eta Aramakoa ezin izan zen pilota bueltatzera iritsi. Arbitroek tantoa ontzat eman zioten Altunari eta Martijari eta ez zuten tantoa baliogabetu.

Martija makina bat komunikabideetako portada izan da, partida horrek datu ikusgarriak utzi zituelako: 85 minutu eta 756 pilotakadako partida gogorrean, 200 pilotakada Martijak jo zituen, sekulako zifra, Iribarriak 192, Zabaletak 185 eta Altunak 179 jo zituztenean.

## Martija lehia

Altuna III.ak eta Martijak Urrutikoe-txearen bizkaitarrak aurki esango du jokatzeko moduan dagoen hala ez- eta Aretxabaletaren kontra jokatu dute igandean Bilbon (ETB1). Urruti eta Aretxabaleta txapelketan aukerarik gabe daude, baina ez dute sailkapeneko faroltxo gorria izan nahi eta jokoan dagoen puntua lortu nahi dute; eta Altuna III.ak eta Martijak, konfiantza alde, 5. puntua lortu nahi dute, borrokan jarraitzeko. Jardunaldi interesgarria, beraz.

## SAKANAKO TOPAKETAK

### PARTIDUAK

IGANDEAN KIMUAK ETXARRIN

10:30 Tipi Tapa - Lagun Artea 08

11:30 Lagun Artea 07 - Etxarri Aranatz A

12:30 Urdiain - Etxarri Aranatz 1

### Sakanako Futbol Topaketak: igandean kimuak Etxarrin

Igandean Sakanako Futbol Topaketetako kimuen 9. jardunaldia jokatu da Etxarri Aranatzeko goizeko 10:30etik aurrera. Guztira hiru partida jokatu dira. Benjaminek atsedena hartuko dute Sakanako Futbol Topaketak Sakanako Mankomunitateak antolatzen ditu, Sakanako futbol klub eta taldeen laguntzarekin. Txikienei txapelketa batean parte-hartzea ahalbidetu nahi zaie, baina ez da txapelketa lehiakorra eta, horregatik, ez da sailkapenik egiten. Sakanako beste herrietako neska-mutikoekin futboleko arituz ongi pasatzea da asmoa.

## ELOMENDI TXAPELKETA

### 13. JARDUNALDIKO EMAITZA

Zalduak atsedena jardunaldia zuen

### SAILKAPENA

ELOMENDIKO FUTBOL TXAPELKETA

1 Zaldua 28

2 Elomendi 28

### PARTIDUAK

LARUNBATEAN

Izalsa - Zaldua (Paternain)

### Zalduak lidergoari eutsi dio

Asteburuan Elomendiko Futbol Txapelketako 13. jardunaldia jokatu zen eta Arakilgo Zalduak atsedena jardunaldia zuen, baina hala ere lidergoari eutsi dio Zalduak, Elomendi bigarrenarekin puntutara berdinduta.

## EMAKUM. ERREGIONALA

### 19. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasu - Lourdes 3-0

### SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Osasuna Fundazioa 52

12 Altsasu 19

### PARTIDUAK

IGANDEAN

17:45 Burlades - Altsasu (Erripagaina)

### Hiru puntu oso garrantzitsu

Altsasuko neskek 3 eta 0 irabazi zioten Lourdes taldeari eta hiru puntu oso garrantzitsu lortu zituzten, sailkapenerako baino, animoa jasotzeko. Igandean sailkapenean hamargarrena den Burlades taldearen kontra ariko dira.

## FUTBOL PREFERENTEA

### 17. JARDUNALDIKO EMAITZA

Etxarri Aranatz - Doneztebe 1-3

### SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Lagunak 33

10 Etxarri Aranatz 22

### PARTIDUA

IGANDEAN

15:45 Etxarri - Arrotxapea (San Donato)

### Etxarrik Donezteberekin ezin

Doneztebe penalti zalantzagarririk bati esker aurreratu zen. Etxarri saiatu zen, baina ez zuen Donezteberen atea zulatzea lortu. Tarte oso laburrean bi gol sartu zituen Doneztebek, eta nahiz eta Xabaten golak Etxarri gerturatu, puntuek ihes egin zuten.



## FUTBOL ERREGIONALA

### 18. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Liceo Monjardin - Lagun Artea 0-4

San Ignacio - Altsasu 2-0

### SAILKAPENA

ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Lagun Artea 45

4 Altsasu 31

### PARTIDUAK

IGANDEAN

16:15 Lagun Artea - San Ignacio (Itxasalde)

16:15 Altsasu - Lagunak (Dantzaleku)

### Lagun Arteak lider jarraitzen du

Liceo Monjardin taldeari 0 eta 4 irabazi zion Lagun Arteak Ander Unanuak, Daniel Bravok, Unai Zubiriak eta Ion Ollok sartutako golei esker. Jaun eta jabe izan zen liderra. Nafarroako Unibertsitate Publikoko zelaian San Ignaciok eta Altsasuk lehia oso estua izan zuten. San Ignacio aurreratu zen, eta nahiz eta Altsasu saiatu, San Ignaciokoak izan ziren bigarren gola sartu eta partida irabazi zutenak.



# Euskadi-Muriasen aurkezpena

**TXIRRINDULARITZA** Ilbeltzaren 23an egin zen gizonezkoen Euskadi-Murias talde kontinentalaren eta Maialen Aramendia iturmendiarraren Murias-Limousin emakumezko taldearen aurkezpena, Oreretako Niessen Gune Komertzialean

Ilusioa. Hori omen da Euskadi-Muriasen 2019 denboraldia hobekien definitzen duen hitza. Hori azaldu zuten taldearen aurkezpenean, bederen. Ilbeltzaren 23an Oreretako Niessen Gune Komertzialean aurkeztu zituzten 2019ko Euskadi-Murias gizonezkoen talde kontinental profesionala eta 23 urtez azpiko, juniorren eta kadeteen Murias-Limousin emakumezkoen taldea. Azken honetan ariko da Maialen Aramendia txirrindulari iturmendiarrak.

## Patxi Mundiñanok mekanikari eta zuzendariondoko lanetan jarraitzen du

Gizonezkoen Euskadi-Murias taldeak 20 txirrindulari izanen ditu, Jon Odriozolaren aginduetara. "Euskadi-Muriasen bosgarren denboraldia izan behar da hau; orain arte eta egindako lan bikainagatik uste baino lehenago kokatu gara munduko txirrindularitzaren elitean" nabarmendu zuen Odriozolak. Hor kokatu zituen Flecha Valona eta antzeko lasterketa garrantzitsuetan aritzeko gonbidapenak. "Elitean gaude; orain, horrenbeste esfortzuren ondorioz lor-

tutako une hauetaz gozaten jakin behar dugu. Hori da aurretik dagokiguna: bide berean lan egin, baina, aldi berean, disfrutatu, historia egiten gaudelako" gaineratu zuen.

Aipatzekoa da Muriasen staffean etxarriar bat dagoela, Patxi Mundiñano mekanikaria, aldi berean zuzendariondoko dena.

## Maialen Aramendia, emakumezkoetan

Emakumezkoen Murias-Limousin taldeko Loli Sansanok, bere aldetik, Muriasek emakumezkoen taldea izateko apustua nabarmendu zuen. "Ziurrenik etorkizunean poz asko ekarriko digute" aipatu zuen. Iturmendiko Maialen Aramendiak Murias-Limousin taldean debutatuko du aurten, 23 urtez azpiko eta jubenilen taldean, Maialen Aramendia, Irati Idirin, Garazi Erostarbe, Naia Amondarain, Xubane Garai eta Ekhine Rivas txirrindulariek osatuko dute Murias-Limousin, eta kadete mailako Limousin-Murias taldea Amaia Astarloak, Jone Gisasolak, Naroa Olanok eta Nagore Txintxurretak osatuko dute.



Maialen Aramendia Muriaseko kideekin, taldeko aurkezpenean. EUSKADI-MURIAS

## Humiclimaren kontra ezin

**SASKIBALOIA** Autonomia Arteko 2. mailako 14. jardunaldian, Humiclima taldearen kontra aritu zen Altsasuko CBASK taldea, eta 76 eta 50 irabazi zuten Berriozarkoek, txapelketako lidergoa eskuratuz (24 puntu). CBASK 8.a da sailkapenean, eta bihar, larunbatean, bigarrena den Genicero La Alcohlera taldearen kontra ariko da, Geniceron.



CBASK

**SAN DONATO**  
HERRI ESKOLA



## AURREMATRIKULA EPEA

Otsailaren 4tik 8ra



herriaren eskola  
ikasi eta bizi

www.etxarrioeskola.com | cpexarr@educacion.navarra.es | Tel. 948567003

# Raul Audikana 26.a Idiazabalgo krosean

**ATLETISMOA** Guztira 458 korrikalarik parte hartu zuten igandean Idiazabalen jokaturako herri krosean (10,2 km). Marc Hurtado eta Izaro Rubio gailendu ziren eta Raul Audikana eta Leire Estarriaga izan ziren lehen sakandarrak

Igandean korrikalariz bete zen Idiazabal. Urtetik urtera korrikalarien egutegian toki bereziagoa duen XXXIX. Idiazabalgo herri krosa jokatu zen, 10,245 kilometroko lasterketa.

## 458 korrikalari

Guztira 458 korrikalarik hartu zuten irteera, eta horietatik 452



Raul Audikana olaztiarra, igandeko lasterketako une batean. LASTERKETAK.COM

iritsi ziren helmugara, Marc Hurtado gasteiztarra (33:05) eta Izaro Rubio ordiziarra (39:37) buru zirela.

Idiazabalgo proba osatu zuten 452 korrikalarien artean 10 sakandar zeuden, eta guztien artean

azkarrena Raul Audikana korrikalari olaztiarra izan zen, helmugan 26.a sartu zena (36:51). Emakumezkoetan Leire Estarriaga izan zen sakandarren artean azkarrena (48:31, helmugan 316.a).



Beñat Katarain Larra-Belagua lasterketan. JAVIER LIZARRAGA

## Beñat Katarain hirugarrena Larra-Belagua elur lasterketan

**MENDI LASTERKETAK** Euskal Herriko Elur Lasterketen Txapelketa zen proban 56 korrikalari lehiatu ziren

Ilbartzaren 19an Larra-Belagua mendiko lasterketa jokatu zen Larra-Belaguako Ipar Eski Gunean, Euskal Herriko Elur Lasterketen Txapelketa.

56 korrikalarik osatu zuten elur gaineko 11 kilometroko trail laburreko erronka, elurrez gainekoa zegoen Larra-Belaguako Ipar Eski Gunean, eta guztien artean Navasfriasko Alvaro Ramos izan zen azkarrena (58:29), Billabonako Hassan Ait Chaouri 8 segundo aterata (59:37). Beñat Katarain lakuntzarrak osatu zuten podiuma, helmugara hirugarrena heldu eta gero (1:01:20).

Emakumezkoetan Nuria Dominguez palentziarra gailendu zen, helmugan 24.a (1:21:18), Zizurko Irene Guemberen (1:28:41, helmugan 40.a) eta Paternaingo Rebeca Artiedaren (1:33:52, helmugan 44.a) aurretik.

Larra-Belagua elur lasterketa, aldi berean, Euskal Herriko Elur Lasterketen Txapelketa izan zen, baita Nafarroako Elur Lasterketen Txapelketa. Beñat Katarainek erakutsi zuen korrika, ia lur gainean bezain ongi moldatzen dela elur gainean, baina oraindik asko duela ikasteko azaldu du sare sozialetan.

## Sakandarrak

### Gizonezkoak

1. Marc Hurtado (Gasteiz)	33:05
26. Raul Audikana (Olaz)	36:51
45. Ivan Sobredo (Alts)	37:45
46. Felix Benjumea (Alts)	37:47
108. Joseba Iza (Arb)	40:09
116. Asier Estarriaga (Etx)	40:27
214. X. Martinez (Alts)	44:34
249. J. C. Perez (Alts)	45:59
318. Iñigo Zapirain (Alts)	48:33

### Emakumezkoak

88. Izaro Rubio (Ordizia)	39:37
316. Leire Estarriaga (Etx)	48:31
386. Ainh. Markinez (Olaz)	52:56

## Iñigo Aritza Pilota txapelketak baditu txapeldunak

**PILOTA** Igandean jokatu ziren finalak, 9 guztira, Altsasuko Burunda pilotalekuan

Igandean despeditu zen XXI. Iñigo Aritza ikastolako Pilota Txapelketa. Euskal pilota sustatzeko antolatzen du txapelketa Iñigo Aritza ikastolak, eta txapelketarekin batera, ikastolako neska-mutikoek pilota eskolak jasotzen dituzte, euskal pilotaren erabilera bulkatzeko.

Egindako lanak fruitua ekarri du, ikasleek pilota gustuko baitute. Atsedendietan ohikoa da neska-mutikoak pilotan jokatzera, eta, horrekin batera, harrera bikaina izaten du antolatzen den pilota txapelketak.

### 50 pilotari

Pilotak duen harrera bikaina horren erakusle, XXI. Iñigo Aritza Pilota Txapelketan guztira 50 neska-mutikok hartu zuten parte aurten, 34 mutilek eta 16 neskek. Txapelketa ligaxkan jokatu da, eta 5 jardunaldiren ondoren, pilotari finenak finalak jokatzeko sailkatu ziren. Igandean jokatu ziren finalak, 9 guztira, Altsasuko Burunda pilotalekuan. Ikusle ugari bildu ziren eta pilota festa polita ospatu zuten. Bukaeran finalista guztiak oroigarriak jaso zituzten.



Txapelketako finalista guztiak argazkia atera zuten. IÑIGO ARITZA IKASTOLA

## Finalak

### Benjaminak

- **LH3:** Egoi Urtasun 18 – Ekhi Azpiliketa 11
- **LH3:** Juna Mendia 10 – Anitz Anda 18
- **LH4:** Urko Lanza 18 – Harri Mitxelena 10

### Kimuak

- **LH5:** Asier Zubiria 18 – Mikel Arrizabalaga 8
- **LH6:** Oier Carabias 2 – Aimar Igoa 18
- **LH6:** Alaitz Lanza 4 – Iraide Vergara 18

### Haurrak

- **DBH1:** Oier Mitxelena 18 – Patxi Azpeitia 13
- **DBH2:** Iker Agudelo 18 – Aimar Gracia 7

### Kadeteak

- **DBH3, mistoa:** Udane Vergara-Arkaitez Agirretxe 11/ Irati Lumberras – Aritz Ulaiar 18



Nafar Kirol Jolasetako Nafarroako Igeriketa Txapelketako aurreko saio bat, Zelandin. SAKANA IGERIKETA ESKOLA

# Altsasu igerilarien bilgune izanen da bihar

**IGERIKETA** Bihar, larunbatean, NKJen Nafarroako Promesen Igeriketa Ligako kimuen mailako 4. jardunaldia jokatu da Zelandi kiroldegietako igerilekuan, 17:00etatik aurrera. Tartean Sakana taldeko igerilariak lehiatuko dira

Altsasuko Zelandi kiroldegiko igerilekuak igerilariz beteko dira bihar. Izan ere, XXXII. Nafar Kirol Jolasen (NKJ) Nafarroako Promesen Igeriketa Ligako kimuen mailako 4. jardunaldia jokatu da bihar, larunbatean, Altsasan, 17:00etatik aurrera.

Honako klubeko igerilariak lehiatuko dira: Pamplona CN, Amaya CD, Tennis P., Arenas SDR. Campoamor C., Tafalla CN, Txantrea KKE, V. Aranguren, Ribera Media, Atalaya, Eskuna, Etxabakoitz eta Sakana Igeriketa Taldea. Honako probak osatu beharko dituzte: gizonetzkoak 200m librean, emakumetzkoak 200m librean, gizonetzkoak 200m bularrean, emakumetzkoak 200m bularrean, gizonetzkoak 50m tximeletan, emakumetzkoak 50m tximeletan eta emakumetzkoen erreleboak, 4x50m estiloak.

## Benjaminak Burlatan

Kimuen mailako igerilariak Altsasan ari diren bitartean, benjaminen mailakoak, Sakana taldekoak barne, Burlatan lehiatuko dira, larunbatean, goizeko 10:00etatik aurrera.

## ARETO FUTBOLA Osasuna Magna lehen mailako laugarrena da

Osasuna Magnaren bolada onak ez du etenik. Ostiralean Mallorcako Palman jokatu zuten nafarrekin, sailkapenean laugarrena zen Palma Futsal taldearen kontra. Arerio zuzenen arteko partida zen, talde berdea 5.a baitzegoen sailkapenean eta, hortaz, Palmaren 4. postua bera zen jokoan zena. Partida bikaina jokatu eta 2 eta 3 irabazi zuten berdeek, eta horrekin batera sailkapenean laugarren postura igotzea lortu zuten. Roberto Martil, Eric Martil eta Dani Saldise izan ziren golegileak.

"Oso partida lehiatua izan da, gure emaitza defendatzen jakin izan dugu eta justuki irabazi dugu" adierazi zuen Imanol Arregi entrenatzaileak.

Barça Lassa da liderra (48 puntu) eta Osasuna Magna laugarrena da (40 puntu). Asteburuan ez dago jardunaldirik, Espainiako selekzioko partidak daudelako. Ildo honetan, Rafa Usin eta Eric Martel selekzioko konbokatutakoak dituzte.

## 2019-2020 ikasturtea

IZENA AURRETIK EMATEKO EPEA: otsailaren 4tik 8ra



**ZELANDI  
HERRI-ESKOLA**

### Haur Hezkuntza

(3-6 urte)

### Lehen Hezkuntza

(6-12 urte)

Eskolaldi  
etengabea

A eta D

ereduak

Goiztiarren gela

Jangela zerbitzua

Eskolaz kanpoko

jarduerak

Arratsaldeko tailerrak

948 564 839 · Zelandi, 18 · 31800 ALTSASU

cpalsasu@educacion.navarra.es · zelandieskola.educacion.navarra.es/web/



Sortzen



## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

## OSTIRALA 1

**BAKAIKU** Korrika batzordearen bilera.  
18:00etan, Auzoan.

**ALTSASU** Gazte agenda. Neskak Santa Agedan.  
19:00etan, Intxostiapuntan.

**ETXARRI ARANATZ** Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.  
19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ** Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.  
20:00etan, plazan.

**ALTSASU** Altsasukoak aske kontzentrazioa.  
20:00etan, udaletxe parean.

**ALTSASU** *Tiempo despues* filmaren emanaldia.  
22:00etan, lortia kultur gunean.

**OLATZAGUTIA** Santa Ageda 2019. Oihan Vega.  
00:00etan, Barandi tabernan.

## LARUNBATA 2

**ALTSASU** Mus txapelketa, 4 erregetara.  
17:00etatik aurrera, gaztetxean.

**LAKUNTZA** *Pumori*, mendiaren alaba dokumentalaren emanaldia.  
18:00etan, kultur etxean.

**BAKAIKU** Bakaikuarron topaketan ondorioen aurkezpena. Ondoren, auzatea.  
18:00etan, udaletxean.

**ALTSASU** Gazte agenda. Sukaldepostreak merendatu.  
18:00etan, Intxostiapuntan.

## IGANDEA 3

Altsasu **Extremadurako** ohiturazko txerri-hiltzea. La Encina elkarteak antolatuta.  
09:00etatik aurrera, La Encinan.

**ALTSASU** *Ploey* haurrendako filmaren emanaldia.  
17:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** Gazte agenda. Dantza ikasi: jota, zortzikoa...

18:00etan, Intxostiapuntan.

**ALTSASU** *Tiempo despues* filmaren emanaldia.  
19:30etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** *Black is beltza* filmaren emanaldia.  
19:40etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.  
20:00etan, Foru plazan.

## ASTELEHENA 4

**ALTSASU** Pentsio duinen alde. Sasoiak eta Nafarroako Pentsionistak Martxanek deitutako elkarretaratzea.  
12:00etan, udaletxearen parean.

## OSTEGUNA 7

**ETXARRI ARANATZ** Gudariak direlako, Amnistia osoa. AEMren Kontzentrazioa.  
19:30ean, plazan.

**ALTSASU** *El gran baño* filmaren emanaldia.  
19:00etan, lortia kultur gunean.



**ALTSASU** Motxila etorkizunez bete erakusketa. Sare-k antolatuta. Urtarrilaren 29tik otsailaren 3ra. Astelehenetatik larunbatetara 18:30etik 21:00etara eta igandetan 16:00etatik 20:30era, lortia kultur gunean.



**ALTSASU** 1994 kintoen erakusketa. Asteartetik larunbatetara, 19:30etatik 21:00etara, Gure Etxea eraikinean.



**ALTSASU** Barne Barnetik Alvaro Mundiñano etxarriarren margolanen erakusketa. Otsailaren 5etik 24era. Astelehenetatik larunbatetara 18:30etik 21:00etara eta igandetan 16:00etatik 20:30era, lortia kultur gunean.

**EZ IZAN BURUGOGORRA!**  
ZORIONDU MAITE DUZUN HORI  
zorion@guaixe.eus



**DEKOVEN NAVARRA**  
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarra.com  
www.dekovenavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**  
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKERTZA

**Ramon Romero Piñas**  
2019ko Ilbeltzaren 22an hil zen

"Eskerrak eman nahi dizkizuegu une latz hauetan gurekin egon zareten guztioi"

Romero-Piñas familia eta Ramonen emaztea

OROIGARRIA



Gure Santa Agedaren 40.urteurrenaren elkarretaratze honetan, batzuk ez zarete egongo. Oso goiz joan zineten eta zuen falta somatzen dugu. Baina, beti gure gogoan zaudete.

Bihotz bihotzez  
Altsasuko 79ko kinta

OROIGARRIA


**Vicente Zelaia Agirrebengoa**  
I. urteurrena



"Erraza zen zurekin bizitzea, ez ordea zu gabe"

Maite zaitugu  
Etxekoak

OROIGARRIA




**Ana Alegria Mazkianan**  
I. urteurrena

"Gure ondotik joan zinen, baina, gure bihotzetan zaude beti"

Angel, Andrea, Ruben eta Irune  
Olazti

OROIGARRIA




**Ana Alegria Mazkianan**  
I. urteurrena

"Zure amaginarrebak eta koinatuek ez zaitugu ahazten"

M<sup>o</sup> Angeles Melero, Paco, Juan Ignacio, Miriam eta Idoia  
Olazti

OROIGARRIA



**Ana Alegria Mazkianan**  
I. urteurrena

"Zure oroitzapenak irribarre goxoa sortarazten digu"

Zure ama eta zure anai-arrebak  
Olazti

IRAGARKI SAILKATUAK

**ALTZARIAK**  
SALGAI  
Sofa-ohoa SALGAI. Gubi erabilia, oso egoera onean dago. (www.guaixe.eu/iragarkiak web-orrian argazkia ikusgai). 150 euro. Deitu 696126174

**LEHIAKETAK**  
GAZTEWOODAltsasuko gaztetxearen III. Film laburren txapelketa. Gehienez 15 minutu. Lanak MP4 formatuan, DVDan edo pendrivean aurkeztu behar dira 2019ko marxoaren 19a

baino lehen. Informazio gehiagorako gazteewood@gmail.com edo sare sozialaetan gazteewood profilean.

**OHARRAK**  
Autobusa AHT-ren kontrako kontzentrazioa joateko: Tren sozialaren eta Abidarura Handiko Trenaren kontrako kontzentrazioa egiten da Tafallako tren geltokiaren parean Otsailaren 16an, 17:00etan. Sakana Trenaren Alde taldeak hara joateko autobusa antolatu du. Joan nahi duenak

ohiko tokietan eman dezake izena. 15:00etan aterako da Altsasuko autobus geltokitik eta herrietan geldialdiak egiten ditu.

**Bidelagun izan nahi?** Mintzakide programaren bidez euskara praktikatzera elkartzeko ari direnak eta hizketatzeko ohitura dutenak. Euskaldun batekin, bidelagun batekin aritzen dira. Bidelagun izan nahi duzu? 600 482 024 telefonoan edo AEKren Itsasi euskaltegian duzu informazio guztia guztia.

**Adona Odol-emateak Olaztin:** Otsailaren 12an, 17:30-20:30. www.adona.es/eu

**Sakana Trenaren alde.** Taldea astelehenero, 19:00etan, elkarrekin da. Behin behineko biltokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilerak.

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 069 0024 878, Rural kutxa 3008 0001 16

0700279128 eta Caixa 2100 2173 87 0200346965

**GoiEner.** Iruñeko helbide berria: Kale Berria 111, 31001 Iruñea, tel 948 504 135. Hilero 1. eta 3. asteazkenetan, 17:00-19:00.

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardueraren sendotzea. Argibide

gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

**3MBk kontu korrontea** zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

**Auzolana Josefina Arregui klinikan.** Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela

www.iragarkilaburrak.eus



HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUI, A TU LADO

**IZARRA**





«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

**ALTSASU** Santa Cruz, 6  
**ETXARRI-ARANATZ** Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

EGURALDIA ASTEBURUAN

<p><b>Ostirala, 1</b></p>  <p>Min. 2° Max. 10°</p>	<p><b>Larunbata, 2</b></p>  <p>Min. -1° Max. 5°</p>	<p><b>Igandea, 3</b></p>  <p>Min. -3° Max. 5°</p>	<p><b>Astelehena, 4</b></p>  <p>Min. -5° Max. 9°</p>
---	--	--	---

**IRACHE** tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70  
@Grupolrache  
Grupolrache  
www.tanatoriosirache.es



Saats Karasatorre eta Eneko Lazkoz. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

## Nafarroako Bertsolari Txapelketarako prest

Otsailaren 9tik martxoaren 23ra jokatu da Bertsolari Txapelketa, herrialde osoan antolatutako saioetan

ETXARRI ARANATZ

Nafarroako Bertsolari Txapelketa 1936koa dela diote Nafarroako Bertsozale Elkartetik. Urte berean jokatu da Bertsolari Egunean Txirritak jantzi zuen txapela, baina aurretik hiru kanporaketa jokatu ziren eta Elizondokoan Juan Felix Iriarte Berjinanto nagusitu zen. Bera da Nafarroako lehen txapelduna. Azken txapelketa 2017an jokatu zen, eta Julio Sotok jantzi zuen txapela. Txapeldun ordea sakandarra izan zen: Eneko Lazkoz. Aurten 44. Nafarroako Bertsolari Txapelketa jokatu da, eta bi bertsolari sakandarrak jokatu dute: Eneko Lazkoz eta Saats Karasatorre etxarriarrek.

Otsailaren 9an, larunbata, Nafarroako Bertsolari Txapelketaren ibilbidea hasiko da. Nafarroa hegoaldeko iparraldera zeharkatu du txapelketa, bertsolaritza eta euskal kultura geografia osotik sustatzeko nahian. Tuteran hasi eta Iruñean amaituko da Txapelketa martxoaren 23an eta, guztira, zortzi saio jokatu dira. Haietako saio bat Sakanan egingen da; martxoaren 9ko finalurrekoa Etxarri Aranazko kultur etxean jokatu da.

30 bertsolariek izan zuten izea, eta aurre-kanporaketak jokatu ondoren, 24 ariko dira Nafarroako Bertsolari Txapelketan, horien artean 2017ko txapelketako txapeldun ordea izan zen Eneko Lazkoz etxarriarra. Lazkozek Julio Sotorekin

buruz burukoa jokatu zuen, eta, azkenean, Sotok jantzi zuen txapela. Saats Karasatorre etxarriarrek ere parte hartuko du Nafarroako Bertsolari Txapelketan, Irunberriko aurre-kanporaketan txartela lortu ondoren. Aurreko txapelketan Karasatorre 25. sailkatua izan zen. Aurreko txapelketan aritu zen Oier Lakuntza urdiaindarra aurten ez da lehiatuko.

Bertsolariek batera, zazpi epailetako taldea, hamabost gaitzaile eta hamaika laguntzaile Nafarroako Bertsolari Txapelketa aurrera eramaten lanean ariko dira. Talde lan horretan ere sakandarrak egonen dira: Joseba Beltza etxarriarrek epaile izanen da, eta Maider Ansa gai-jartzaileen taldean dago.


### Txapelketa

Lau final-laurden jokatu dira Tuteran, Urdazubin, Iruritan eta Lizarran. Otsailaren 9an, 10ean, 16an eta 17an izanen dira. Hortik, 18 bertsolari sailkatuko dira hiru finalurrekoetarako. Atarrabian, Etxarri Aranatzen eta Lesakan izanen dira finalurrekoak, martxoaren 3an, 9an eta 10ean. Finalurrekoetatik zortzi bertsolari pasako dira finalera. Iruñeko Anaitasuna kiroldegian jokatu da finala, martxoaren 23an.

Saats Karasatorre txapelketaren lehenengo saioan arituko da, otsailaren 9an, Tuterako Musika Eskolan; eta Eneko Lazkoz otsailaren 17an arituko da Lizarrako Gazteria Etxean.

## Emakume indartsuak

Tarima Beltza antzerki taldeak Altsasuko auzian deitutakoan auzipetuetako gazteen amak omendu zituen 'Madres y Pasotas' antzezlanaren emanaldiaren ondoren egindako ekitaldi xumean. Ventura Ruiz idazleak emakume "indartsuen" omenezko poema bat idatzi zuen eta amak agertokian zeudela irakurri zituen. Une "hunkigarriak" izan ziren.



ALTSASU GURASOAK

## 'Fontes Linguae Vasconum' aldizkariaren urrezko urteurrena

Satrustegi euskaltzain arruazuarrak euskal filologiaren inguruko aldizkari zientifikoa sortu zuen 1969an

ARRUAZU

Euskal hizkuntzalaritzaren arloan dagoen erreferentziatzeko argitalpena da Jose Maria Satrustegik sortutako *Fontes Linguae Vasconum*. 1969. urtean argitaratu zuten lehenengo alea;

hortaz, 50 urte beteko ditu aurreko aldizkari zientifikoak. Urteurren berezia ospatzeko Nazioarteko kongresua egingen da martxoan eta Nafarroako Errege Artxibo Nagusiko kriptan erakusketa egingen dute. Helbu-

dua argitalpena "herritar guztiengana iristea da", Mikel Arregi Euskarabideako zuzendari-kudeatzaileak azaldu zuenez.

Urteurrenaren harira Nazioarteko kongresua egingen dute martxoaren 6an eta 7an, Iruñean. Kongresuan euskal hizkuntzari buruzko ikerketa desberdinetan lortutako emaitzak eta diziplina horretan erabil daitezkeen tresna berriak ezagutzera emanen dituzte. Bestetik, otsailaren 15etik martxoaren 31ra aldizkariaren erakusketa egingen dute Artxiboan.



BAZTERRETIK

ZIARDIKO LIBURUTEGIA

## Liburutegira hurbiltzeko hiru aukera eta erdi!

Liburu bat gomendatzea ez da batere erraza. Guaietik lan hau eskatu zidatenetik kosta egin zait hautaketa egitea. Irakurleok erabat desberdinak gara eta horregatik, eleberri bat gustukoa izan daiteke edo ez. Beraz, hemen duzue nire proposamena, eta ea asmatu dudan.

Lehenengoa, helduendako euskarazko eleberri bat da: "Bihotz handiegia". Ipuinez osatutako Eider Rodriguezen liburua. Emakumeak, harremanak, gizarteak guregan duen presioa, norberak dituen betebeharrak eta beste batzuk jorratzen ditu. Azken finean eta letra larriz jarrita, SENTIMENDUAK. Irakurtzean hainbat bizipenekin bat egiten duzu eta bertan agertzen diren

kontraesanak zure egiten dituzu. Bizitza bera da sei istorioetan islatzen dena, alde batetik bere konplexutasunekin eta bestetik eguneroko ekintza arruntekin.

Bigarren liburua gaztelaniaz idatzita dago: "Los señores del tiempo", Eva Gª Saenz de Urturi gasteiztarraren trilogiaren azken istorioa da eta "nobela beltza" sailean sartuko nuke, alegia, hilketak, polizia, ikerketak eta historia. 1100. urtea eta 2019.a hartzen ditu eszena toki eta erraztasunez lotzen joaten dira bi aroetako gertaerak.

Eta, azkenik, liburutegira orain iritsi berri den haurrendako liburu bat proposatuko dizuet. Ilustrazio liburua da eta, ustez, euskarazko lehen emakume



idazlea izan zen "Bizenta txiki"-ren bizitza erakusten digu. Yolanda Arrietak idatzi du eta marrazkiak Enrique Morenterenak dira. Euskal Herriko emakume interesgarriak ezagutzeko aukera ezin hobea.

Baina ez dut nire idatzia bukatu nahi bitxikeria bat kontatu gabe. Aurrekoan Miren Agur Meabe idazle lekeitiarraren bisita izan genuen Itsasi euskaltegian eta bere liburu baten irakurtzeko modu xeblea azaldu zigun. "Zer da, ba, maitasuna?" eleberria hasierako orriak eta azkenekoak nahastuz irakurtzeko idatzia omen da, hau da, alde bateko 1 atala azken orriko 1 atalarekin, eta horrela liburu osoa. Proba ezazue, eta ea gustatzen zaizuen. Ni jada horretan ari naiz!

# "Proiektua martxan jartzeko aukera izan da"

**JOXE ALDASORO ETA ANAITZ IGOA IDAZLEA ETA ILUSTRATZAILEA**

Bikoteka album ilustratuak sortzeko ikastaroan parte hartu dute. Elkarrekin proiektu bat egin behar dute: Aldasorok testua jarriko du eta Igoak ilustrazioak

**Erkuden RB** ETXARRI ARANATZ

Album ilustratuak sortzeko testua eta ilustrazioak behar dira. Hala ere, ez da ipuin edo testu bat hartu eta ilustrazioak jarri, Castillo Suarez idazleak azaldu zuenaren arabera. Bi elementuen arteko harremana egon behar da, nahiz eta biek identitate propioa izan. Bikoteka ikastaroan idazleak eta ilustratzaileak elkartu dira proiektu bat aurrera eramateko. Joxe Aldasoro eta Anaitz Igoa etxarriarren kasu. **Bikoteka ikastaroan parte hartu duzue. Zergatik?**

**Anaitz.** Nik marraztea eta ilustrazioa asko maite dudalako, eta Joxek idaztea maite duelako. Aurretik proiektu bat hitzartuta geneukan Joxek idatzitako ipuin bat nik ilustratuko nuela, eta bageneukan ikastaro honen berri ere. Hitz egin genuen aurren aurkeztuko ginatkeela, eta informazioa iritsi zitzaigunean primerako ideia iruditu zitzaigun eta aurrera egin genuen. Proiektu hori mahai gainean jartzeko aukera bat zela ikusi genuen.

**Aurretik, beraz, elkarrekin zerbait egiteko ideia zenuten.**

**Joxe.** Ipuin bat egin nuen eta Anaitzi komentatu nion ipuin horren gainean zerbait egiteko, eta baiezkoa eman zuen. Proiektua hainbat hilabete apartakuta egon da eta Bikoteka aitzakia izan da proiektua berriz hartzeko eta martxan jartzeko.

**Zer ikasten ari zarete?**

**A.** Egutero ilustratzaileok ilustrazioaren inguruan ariketak egiten ditugu, eta idazleak idazketaren inguruan; betiere albumarekin lotua edo albumean atera daitezkeen atal desberdinei lotuta. Irudimena lantzeko eta elkarrekin lanean aritzeko ariketak ere egiten ditugu.

**Idazle bat eta ilustratzaile bat behar dira albumak egiteko?**

**J.** Obligaziorik ez dago, baina album ilustratu batek bi hizkerak ditu: testua idatzia eta irudia.



Anaitz Igoa eta Joxe Aldasoro ikastaroan. UTZITAKOIA

Idazlea esan daiteke espezializatuagoa dagoela idazketan eta ilustratzailea marrazketan. Baina biak lotuak egon behar dira. Ikasi behar da irudia eta hitza ongi lotzen album bat egiteko.

**Erraza da?**

**A.** Ez dakit ongi moldatzen garen edo zer, baina gure proiektuan ni oso eroso nago. Hori lantzen ari gara, egia esan. Bitartean gure proiektua lantzen ari gara eta irakasleak hori daude. Etengabe galdetzen dugu nola egin ditzakegun gauzak, eta laguntzen digute.

**J.** Ikasten ari gara. Niri kostatzen zait, oso interesgarria da, baina erraza esango nuke ezetz. Gero, idazleendako oso garrantzitsua da hitza, eta orduan esaten badigute hitz bat edo esaldi bat kentzeko minarekin hartzen dugu. Baina, noski, ilustratzaileari esaten badiote hemen hobe hau kentzen baduzu eta hitz bat jarri orduan suminduko da bera. Etengabeko elkarrizketan egon behar gara, eta komunikazio ona izan behar dugu.

**Joxe, hainbat literatur lehiaketetan parte hartu duzu, Arbizuko Letrak Ahora edo Iruñeko idazle berrien-**

**dako literatur lehiaketa, esaterako. Eta irabazi ere.**

**J.** Baten bat irabazi dut, baina egia da ez direla punta puntako edo lehen mailako lehiaketak. Sakanan pare bat irabazi ditut, eta Bizkaia aldean besteren bat. Zer edo zer egin dut, bai.

**Orain, urrats bat gehiago eman nahi duzu eta album ilustratu bat sortu?**

**J.** Bai, eta ni marrazten zero. Lagun bat behar nuen eta aurkitu dut.

**Eta zuk, Anaitz, ilustrazioaren munduko lehiaketetan parte hartu duzu?**

**A.** Ilustratzea gustatzen zitzaidan eta ilustrazio tailer bat egin nuen. Askok gustatu zitzaidan eta horri begira nuenarekin hasiko nintzela erabaki nuen. Aldi pare bat aurkeztu naiz. Egia esan, urte hauetan nire marrazteko moduan aldaketa handia ikusi dut. Eta gero Marrazteko topaketetan parte hartu dut eta bi alditan hori aritu naiz. Baina ez dut inongo saririk lortu. Ikasten nabil, ikasten jarraitu nahi dut; disfrutatzen.

**Etxepare lehiaketara aurkeztuko zarete?**

**A.** Albuma bukatu behar dugu. Ikusten ari gara lan asko egin

behar dugula guztia prest izateko. Ea iristen garen.

**J.** Arazoa da lan handia egin behar dela. Ilustrazioek lan handia eskatuko diote Anaitzi, gure proiektua tamainoz nahiko handia delako. Ordu asko sartu beharko ditu.

**Zer ematen dizuete idazteak eta ilustratzeak?**

**J.** Oraindik oso ongi ez dakit. Barne daukadan kezka, ezinegonak, miseriak eta horiei bide ematea, nire kasuan.

**A.** Ez dakit. Txikitatik margotu eta marraztu dut. Mendira joatea gustuko dudana bezala, marraztea ere. Eta batzuetan gozatzeko duzu eta beste batzuetan zure barruan duzun hori marrazkien bidez ateratzen da. Gauza asko daude, eta hori adierazten dira.

**Kasu honetan Joxeren ipuin bat izan duzue oinarri, baina zertan inspiratzen zarete?**

**A.** Kasu honetan, testu baten gainean sortu dira ilustrazioak. Baina ez du zertan horrela izan behar. Izan daiteke bien artean sortzea edo marrazkietatik idatzia sortzea... kasu honetan horrela izan da.

**J.** Ariketa batean poema bat irakurri ziguten eta azaldu behar genuen zer irudi etortzen zitzaizkigun burura. Horren ondoren album ilustratu bat sortu behar genuen poema horretan inspiratuta. Testuak eta irudiak oso desberdinak ziren, ez zuten loturarik. Orduan, inspirazioa da esertzea, boligrafoa, ordenagailua edo dena delakoa hartu, eta idazten hasi eta marrazten hasi.

**A.** Nik uste garrantzitsua dela horretan egotea. Nik izan ditut gehiago edo gutxiago aritu naizen denboraldi batzuk, eta gehiago aritzen naizen horietan ideiak gehiago etortzen zaizkit.

**Zer nolako esperientzia izan da ikastaroan parte hartzea?**

**J.** Gustura aritu gara. Lan metodologia interesgarria da, arina. Ez dago teoriarik, baina ariketak komentatzerakoan gauza asko ateratzen dira. Egia da egutero zortzi ordu izan direla eta pixka bat nekagarria izan dela, baina eritimoa ez da estresantea edo itogarria izan.

**A.** Ni oso gustura egon naiz. Gainera, beste kide batzuekin aritzeko aukera eman digu. Niretzat hori ez da oso ohikoa, normalean nire kabuz lan egiten dut eta besteen lanak ikustea oso aberasgarria da.

## Irurtzun Euskara eta Kultura, interes sozialekoa

Gobernuko kulturak interes sozialekotzat jotzen dituen entitate eta artisten 29 proiektu

IRURTZUN

Irurtzungeko eta inguruko ondare linguistikoa eta folklorikoa babestea eta euskararen erabilera eta bertako kultur adierazpenak sustatzea dira Irurtzun Euskara eta Kultur proiektuaren helburuak. Irurtzungeko Aizpea Taldeak eta Pikuxar Euskal Txokoa-Kultura, Aisialdi eta Gastronomia elkarteak aurrera eramanez egitasmoa, eta orain Nafarroako Gobernuak interes sozialerako proiektua izendatu du. Hortaz, kultur garapena eta kultur arlo desberdinak hobetzen eta laguntzen duten mezenasgoa lortu dute, eta Foru Legearen aurreikusitakoaren arabera dohaintzagileek fiskalki onurak izan dezakete.

Irurtzun Euskara eta Kultur proiektuaren bidez, bi elkarteek "zerbitzu publikoa eskaintzen diegu euskaraz edota kulturaz arduratzen diren Irurtzungeko eta inguruko bailaretako pertsonei eta erakundeei". Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko ekimenak egiten dituzte, baita "ohituren adierazpen folklorikoak" bultzatzen dituzte ere. "Esaterako, Gau beltza delakoa eta jardunaldi etnografikoak egin ditugu".

Gainera, mezenasgoa lortu duen ekimenarekin ere sormen artistikoa sustatzen eta sortzaile berriak laguntzen dituztela azaldu dute Pikuxarretik: "gure bi lokalak publikoak dira, eta bertan artista amateurren eta sortzaile berrien emanaldiak izan ohi dira". Artistek "esperientzia" eta "currículuma" lortzen dute.

"Programa honek balio berezia ematen dio Irurtzungeko eta inguruko jendeak kulturaren parte hartzeari". Hortaz, Pikuxar elkartearen oinarrietako bat, jakinarazi dutenez, parte hartze aktiboa da. Bazkideek agendako ekintzak antolatzen dituzte hainbat lan batzordeetan.

## 11 GALDERA



Maixabel Lopez de Uralde, Txetxo Claver eta Aitziber Etxaiz.

# "Zortzikoa erraza da, jota eta porrusalda ez"

Otsailaren 5etik 9ra, arratsaldero, Altsasuko kintoek, banan-banan, herriko zortzikoa dantzatuko dute plazan. Lehenengo aldiz Aitziber Etxaiz eta Maixabel Lopez de Uralde aritu dira dantzak irakasten, Txetxo Claver beteranoarekin batera

## Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

### 1 Zergatik kintoen laguntzaile izan?

**Aitziber.** Txetxok Beramenetik utzi behar zuela eta jendea behar zuela esan zion Maixabeli eta Maixabelek baietz esan zuen. Berehala ni konbentzitu ninduen.

**Maixabel.** Ez nion baietz esan, uste nuen ezin niola ezetz esan.

**Txetxo.** Martxoan esan nien. Dantzatik ezagutzen nituen, elkarrekin aritu ginen.

**M.** Erantzuna bazenekien!

### 2 Dantzariak izandakoak zarete, beraz. Garrantzitsua da kintoen laguntzaile izateko?

**A.** Ez. Nik uste ez zarela zertan dantzaria izan behar zortzikoa eta jota eta porrusalda irakas-

teko. Hori edonork irakatsi dezake. Dantza gustatu behar zaizu, hori bai.

### 3 Lehenengo emakumeak zarete, hori bai. Erronka bezala hartzen duzue?

**M.** Emakumea izatearena ez dut berezia ikusten. Hemen ez nago emakumea izategatik, gustatzen zaidalako baizik. Beti gizonak

izan dira bai erakutsi dutenak bai dena egiten zutenak, eta erronka bat da. Baina garrantzitsuagoa iruditzen zait euskalduna izatea.

**A.** Apustu handiagoa da hizkuntzarena emakumearena baino.

### 4 Zuek kintoak izan zinetenean ez zenuten dantzatu.

**M.** Orduan beste mundu bat zen. Gu joaten ginen gonbidatuak kafea hartzera eta listo. Dantza eta festan parte hartu gaur egun egiten den bezala ez.

### 5 Eta, orain, kinto guztiek parte hartzen dute berdintasunean.

**A.** Garapen positibo bat eman da, dudarik gabe. Duela urte batzuk hasi zen, poliki-poliki, eta modu natural batean lortu den zerbait da.

### 6 Nola doaz entseguak?

**M.** Badoaz. Soinua eta dantzaren erritmoa ezagutzen zuten, baina dantza egiten erakutsi behar zitzairen.

**A.** Aldaketa nabarmena izan da bigarren astetik aurrera. Batzuk zerotik hasi dira. Zortzikoa gutxi gora behera badakite, ikasteko eta erakusteko erraza da. Okerragoa da jota eta porrusalda. Beste mundu bat da.

### 7 Eta zergatik egiten zaie zaila jota eta porrusalda?

**M.** Ez dakit. Agian da plazan gutxiago dantzatzeko dutelako. Guk betidanik ezagutu ditugu dantza hauek, ez bakarrik dantza taldean. Jota eta porrusalda taldean sartu aurretik ezagutzen genituen plazan dantzatzeko gurenelako.

**A.** Ez dakit zer den. Oreka, bueltak emateko modua... detailtxoak

dira. Zortzikoak oso ongi ditu denborak markatuak.

### 8 Hala ere, ikasle onak dira.

**A.** Bai, eta jarrera oso garrantzitsua da. Binaka entseatzeko dute, plazan bezala, eta egunero bost zortziko inguru egiten ditugu.

**M.** Bitartean gu bueltaka aritzen gara eta gaizki doana edo erritmoa galtzen duenari esaten diogu.

**A.** Jende asko etortzen da ikustera, gehien bat ostiraletan. Zuri begira daude, eta norbait zerbait gaizki egin duela esan behar badiozu, guztiek ikusten dute ere.

### 9 Ilbeltzaren 8an hasi zineten. Dantzak ikasteko nahikoa da?

**M.** Hilabete bat zortzikoa dantzatzeko, bai. Baina jota eta porrusalda ongi ikasteko ez da nahikoa.

**T.** Hala ere, zortzikoan galtzea ere zaila da. Plazan jota eta porrusalda guztiek batera dantzatzeko dute, baina zortzikoa bakarrik.

**A.** Horregatik, dantzagaia oso garrantzitsua da.

### 10 Santa Ageda ospakizunetan, zein da zuen lana?

**M.** Gu orain hasi gara, orduan ikusiko dugu orain egin behar duguna. Txetxok esango digu.

**A.** Plazan egon beharko gara kontrolatzeko dantzatzeko dutela. Baina bost egun dira, hiru ordu egunero, bakoitzak gure familia dugu eta moldatu beharko gara.

### 11 Zer nolako harremana sortzen da?

**M.** Oraindik ez dakit.

**A.** Plazan edo beraiekin bazkaltzera joaten bagara sortuko da.

**Osoa:** [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

## BAZKIDE SARITUAK

- Kristina Razquin Larumbe (Lakuntza)
- Kontxi Lakuntza Arratibel (Lizarragabengoa)
- Aritz Igeltz Lazkano (Lakuntza)
- Maider Goñi Errazkin (Etxarri Aranatz)

### OTSAILEKO SARIAK:

**1. SARIA:**  
 EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA  
 ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA  
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA  
 GAZTEZULO: 3 HILABETZ DOAN  
 EREIN: ARGITALETXEAREN LIBURU BAT

**2., 3. ETA 4. SARIA:**  
 ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA  
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA  
 GAZTEZULO: 3 HILABETZ DOAN  
 EREIN: ARGITALETXEAREN LIBURU BANA

Ekain berri









